

aikor.

TOKIKOM

2025eko ekaina • #258

Haz Gaitezen



ERROTAPIONEKO HARRI JASOTZAILEAK

Aspaldiko altxaldiak



ONDO PASA ZAMUDIOKO JAIETAN!



ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com



Hartz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hartz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txantxangorri a2
ZAMUDIO
iz.ileapaindegia@gmail.com



LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SAIGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - **OLAGARROA**
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782



TOLDOS
TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Ana
Belen
Sleepaindegia

Perretxiko kalea 4
Tel. 944 036 860
ZAMUDIO

Gorbea, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión
Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



Errentaren aitortpenak
egiten ditugu

944 521 328
asesoriadiza@gmail.com
Talleri, 3 behea
48170 ZAMUDIO



ASESORIA DIZA

Fiskala - Laborala - Kontablea

Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira

LAGATZU
ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA

aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Itxaso Marina

Maketatzailea:

Aner Mentxaka

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:

Iñaki Astorkiza
Oihana Astobieta

Kolaboratzaileak:

Maitane Apodaka
Iñaki Eguskizaga
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
Patricia Barron San Blas
Joanes Camara
Xabier Diaz
@txiribita_mundi
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka

Inprimategia:

Gertu

Banaketa:

Eragin

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Berri laburrak
- 12 Zamudioko jaiak
- 14 Sondikako jaiak
- 18 Txoriberri
- 20 Errotapioneke harri jasotzaileak
- 24 Zamudioko eta Derioko kooperatiba
- 26 Euskaraldia
- 29 Arrakala digitala
Algoritmoek hezten gaituzte?
- 30 EMAUS
- 31 Teknologia
Jimi Hendrixen gitarra ez da neutroa
- 32 Menditik Patxadaz
Txorierrri iparraldetik (eta II)
- 34 Herbarioa
Astalikardua
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denbora-pasak
- 38 Ekaineko agenda

DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA

Ohitura zaharrak, aukera berriak

MAITANE APODAKA
Lehen Hezkuntzako irakaslea



Eguzkiak egunsentiarri ongi etorria ematen dio, aukera berri bat eskainiz. Bizitzan, nahiz eta askotan modu automatikoan abiatu, aukera berriak agertzen zaizkigu etengabe. Maiatzarekin, Euskaraldiari ongi etorria eman diogu. Bi urtean behin errotuta ditugun hizkuntz ohiturak kuestionatzen duen mugimendua, hitzaren indarra berreskuratzeko ahalegin kolektiboa.

Euskaraldia ez da amaitzen maiatzaren 25ean. Benetako erronka hasten da orduan. Izan ere, *ahobizi* da eguneroko hautu txikien aurrean euskararen aldeko jarrera hartzea. Aldi berean, *belarri-prest* izatea da entzule aktibo bilakatzea, inguruan euskaraz egin nahi dutenei eroso egiteko espazioa erraztuz.

Hizkuntza ez da tresna hutsa; harremanen zubia da. Hitzaren bidez

eraikitzen ditugu elkar-ulertzea, konfiantza eta komunitatea. Euskara, gurea izanik, gure arteko distantziak murrizteko gaitasuna duen altxorra da. Horregatik, euskaraz hitz egitea ez da soilik komunikatzea; konpromiso bat da, eta maitasun adierazpen bat ere bai.

Erein dezagun hazia Euskaraldian eta loratu dadila egunsenti bakoitzean.

Indar gorri

IÑAKI EGUSKIZAGA
Abokatu erretiratua



Azken egunetan komunikabideen bidez jakin izan dogu Kirolean Indarkeriaren aurkako Estatuko Batzordeak Osasunaren zalea dan Indar Gorri taldeko kide bati 60.001 euroko isuna ordaintzeko proposatzen dautsola. Arrazoia: “Weissman kanpora, suntsitu daigun sionismo-faxismoa” txioa argitaratzeagatik, Granada taldeko Weissman futbolari judua El Sadarren ez jokatzeko eskatuz.

Aldez aurretik esan behar da Weissmanek, berak, lehenago beste txio bat idatzi ebala, armarik bako palestinarrei buruan tiro bat emoteko galdatuz eta 200 tona bomba botatzeko Gazan, emakume eta umeak barkatu barik, mapatik ezabatzeko, inoen txioetan “gustatzen jat” ikurra sakatuz.

Argi dago Batzordeak zigor eredu-garri bat inposatu gura deusola Indar Gorri Palestinaren aldeko elkartasun adierazpenak isilarazteko. Hori holan dala egiaztazen da genozidio bat aurreira darian ideologia kritikatzan dauena zigortzen dalako eta ez, aldiz, pertsonak hiltzera deitu eta txalotzen dauena, Weissmanek egiten dauen moduan.

Sarritan esaten da ideia guztiak errespetagarriak dirala eta ez, hori ez da holan, badagoz ezelan be errespetagarriak ez diran ideiak, adibidez giza eskubideen aurka egiten dabenak. Pertsona, barriz, bai errespetatu behar da, ez bere osotasun fisikoa bakarrik, bere eskubideak be bai. Kasu honetan, adibidez, Indar Gorri sionismoa salatzen dau, hau da, ideolo-

gia bat, gainera beragaz batera dakarren haur, emakume, babesgabeko pertsonen erahilketa eta herri oso baten sarraskia. Indar Gorri txio horretan ez du deitzen arma bako sionistei tiro bat buruan emotera, ez haurrak hiltzera, ideologia kaltegarri horregaz amaitzera baizen.

Zalantza barik esan daikegu sionismoa dala momento hontan jarduera faxista muturreraino eroaten dabilena, benetako arrisku larria, palestinentzat bakarrik ez, mundu osoarentzat, eta horretarako israeldar lobbyak munduan daukan indarra egiaztatu besterik ez dogu egin behar, gobernu batzuek (demokratak bihar, gaur ez) herri palestinarekiko elkartasun ekin-tzak be debekatzea lortu dabe, eta Indar Gorrikoa horretarikoa beste adibide bat da.



Kezkaren bat adierazi nahi baduzu edo zerbait esateko baduzu, gutuna idatzi ahal duzu, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali.

BERRI LABURRAK



Lezamak XXII. Txakolinaren Eguna gozatuko du ekainaren 1ean

Ohi den moduan, ekainaren lehen igandean, ekainak 1 aurten, Txakolinaren Eguna ospatuko dute Lezaman. Txakolinaren Eguna Lezamako Udalak antolatzen du BBKren babesarekin, eta aurten 22. edizioa beteko da. Hilario Astorki plazan postuak egongo dira 11:00etatik 17:00etara, eta hara hurbiltzen direnek herriko lau upategietako txakolina dastatzeko aukera izango dute: Basalbeiti, Erdikoetxe, Garkalde eta Magalarte. Horrezaz gainera, 0 km-ko eta kalitate handiko produktuak ere eskainiko dira, hala nola gazta, ogia, barazkiak eta gildak.

Goizean zehar, gainera, hainbat ekin-tza egingo dira azoka girotzeko. Horrela, 11:00etan Kurutze dantza-taldeak kalejira egingo du, eta dantzari txiki-en ikuskizuna ere izango da. Ondoren, 12:30ean, kortxoak kendu, brindisa egin, eta 2025eko enbaxadorea izendatuko da. Aurten, Lezamako Baserritarren Elkarte-a aukeratuko da herriko txakolinaren

enbaxadore, 100 urte bete ditu eta. Pedro Mari Goikoetxea kazetari lezamarrak aurkezle-lanak egingo ditu, eta Asier Dañobeitia herriko sommelieria arduratuko da uza berriko txakolina dastatzeko eta deskribatzeko. Bestalde, Ekidazu abesbatzak ere emanaldia egingo du, eta 15:00etatik 17:00etara Taberna Ibiltariak girotuko ditu plaza eta inguruak. Era berean, goiz osoan umeentzako tailerrak egongo dira udaletxearen atzealdean.

Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkateak herritarrek gonbidatu ditu Txakolinaren Egunaren XXII. edizioaz gozatzen. “Egun berezia da Lezamarrentzat eta bertako herritarrentzat. Giro ona, euskal kultura eta nortasuna eta eskualdeko kalitateko produktuak beti dira protagonista, eta beti da gozameneko eguna. Behin etorrita, askotan errepikatzen du jendeak; beraz, gonbidatuta zaudete gure Txakolinaren Eguna eta produktuak ezagutzera”.



Laguntza Derion, gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko

Derioko Udalak prentsa-ohar batean azaldu duenez, etxebizitza eskuratzeko herritarren kezka nagusietako bat da, batez ere gazteena. Horregatik, 20.000 euroko diru-partida zuzenduko du 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko. Dirulaguntzak diru-sarreraren arabera esleituko dira, eta gehienek errentaren % 50 edo 300 euro izango dira hileko. Eskaerak irailaren 30era arte aurkeztu ahalko dira.

Udalaren esanetan, aurreko edizioan baldintzak bete zituzten pertsona guztiek jaso zuten dirulaguntza, 2.250 eta 3.600 euro artekoa. Laguntza hauek, gainera, bateragarriak dira Eusko Jaurlaritzak ematen dituenekin. Eskaerak online egin daitezke www.derio.eus webgunearen bidez, edo aurrez aurre, GERTUAN Herritarren Arretarako Zerbitzuan. Informazioa eta oinarriak udal-webgunean daude eskuragarri.



Emakumeen Kontseilurako logotipo bila Sondikan

Sondikako Udalak lehiaketa antolatu du Emakumeen Kontseiluko logotipoa sortzeko. Logotipoa Sondikako Emakumeen Kontseilua identifikatuko eta ezagutaraziko du, eta arloak antolatzen dituen ekintza guztietan erabiliko da. Lehiaketan herrian erroldatutako edozein pertsonak parte hartu ahalko du, eta gehienez bi lan aurkeztu ahalko ditu. Irabazleak 100 euroko txartela jasoko du herrian gastatzeko. Lanak ekainaren 15era arte aurkeztu daitezke udaletxean edo liburutegian.

Lanak A3 formatukoak izango dira eta paperean aurkeztuko dira; hala ere, irabazleak euskarri digitaallean erraztu beharko dio udalari. Kolorea eta teknika hautazkoak izango dira, baina logotipoak inprimatu ahal izateko baldintzak bete beharko ditu. Parte-hartzaileek bi gutun-azal aurkeztu beharko dituzte. A gutun-azalearen barrualdean zehaztuko dira parte-hartzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa; eta kanpoaldean, idatzi beharko dira “Sondikako Emakumeen Kontseiluaren logotipoa sortzeko lehiaketa” eta lehiakidearen ezizena. Beste alde batetik, B gutun-azalaren barrualdean logotipoa sartuko da, eta kanpoaldean adieraziko dira “Sondikako Emakumeen Kontseiluaren logotipoa sortzeko lehiaketa” eta lehiakidearen ezizena.

Epaimahaia osatuko dute Emakumeen Kontseiluko bi ordezkari, berdintasun-zinegotziak eta berdintasun-teknikariak. Erabakia hartzeko orduan kontuan hartuko dituzte logotipoaren balio artistikoa, hura irudikatzen gaitasuna eta hainbat euskarritan egiteko moldaeraztasuna. San Joan jaietan jakinaraziko da irabazlea nor den.

BERRI LABURRAK



Iaz 540 pertsona kontratatzea erraztu zuen EGZ Txorierrik

EGAZ Txorierrik oso balantze positiboa egin du 2024. urteari buruz, 540 pertsona kontratatzea erraztu zuen eta. “Zifrak erakusten dute agentziak eta bere lankidetzak-ekosistemak elkarrekin egin duten ahalegina, lurralde dinamikoagoa, lehiakorragoa eta inklusiboa eraikitzeko”, adierazi dute prentsa-ohar batean.

Azaldutakoaren arabera, kontratazioen % 39 lanaldi osokoak eta mugagabeak izan ziren; % 30, lanaldi osokoak eta aldi baterakoak; % 16, lanaldi partzialekoak eta aldi baterakoak; eta % 8, lanaldi partzialekoak eta mugagabeak. Kontrataturako pertsona gehienak emakumezkoak izan ziren, 35 urtetik beherakoak eta goi-mailako ikasketak zituztenak. Kontratazioen profiei dagokienez, 291 pertsona manufaktura-industrietan lan egiteko kontratatu ziren; 236 lagun, merkataritzan lan egiteko; 225, administrazioan; 178, ostalaritzan; 146, profesional eta zientzialari moduan lan egiteko; 116, osasun-arloan aritzeko; 98, eraikuntzan; 69, hezkuntzan; 65, artean eta entretenimenduan; eta 52, beste zerbitzu batzuetan.

Beste aldetik, EGZ Txorierrik laneratzeara eta lanbide-kualifikazioa hobetzera bideratutako 62 prestakuntza-ekintza egin zituen zenbait egitasmoren bidez, adibidez, HAZILAN+ eta 3R Programa proiektuen bidez. Egitasmoetan 18 urtetik 64 urtera bitarteko 473 pertsonak hartu zuten parte: % 44,6 emakumeak izan ziren, eta % 55,4, gizonak. Zehatz-mehatz, enplegua bilatzeko 29 tailer egin ziren, tresna profesionali buruzko 25 saio indibidual, gaitasunak garatzeko zazpi talde-dinamika eta elkarriketak egiteko hiru role-playing saio praktiko. “Ekintzei esker, parte-hartzaileek euren lekua hobetu zuten lan-merkatuan, eta enplegarritasuna indartu”.

Ekintzailetzari dagokionez, 27 enpresa-proiektu egin ziren, eta 23 enpresa berri sortu ziren, Txorierri 32 lanpostu sortuz. Proiektuek guztira 486.770 euroko inbertsioa ekarri zuten, eta 563.480 euroko finantzaketa jaso zuten. Ekintzaileen profila hau izan zen: 35 urtetik 44 urtera bitarteko emakumeak eta 25 urtetik 35 urtera bitarteko gizonak; kasu bietan, erdi-mailako ikasketak zituzten.



Zozketa!

EHZ festibalerako sarrera bikoitza zozkatuko dugu.

Zozketan parte hartzeko idatzi “EHZ” 747 406 561 telefono-zenbakira.

Mezuak jasotzeko azken eguna ekainaren 11 izango da.

BERRI LABURRAK



SUSTAIN-IT egitasmoaren bidez, Politeknika Txorierrik Lanbide Heziketa jasangarria bultzatuko du Afrikan

Erasmus+ programaren baitan, Afrikan Lanbide Heziketa digitala eta jasangarria bultzatzeko nazioarteko partzuergo bat osatu da, eta Politeknika Txorierri bere buru da. “Horrela, berresten dugu eraldatzailea eta inklusiboa den eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH) bat egiten duen Lanbide Heziketarekiko konpromisoa”, zabaldu dute prentsa-ohar batean.

SUSTAIN-IT egitasmoaren helburua da Lanbide Heziketan tresna digitalak bultzatzea ingurumenaren analisia eta monitorizazioa egiteko. “Horretarako, irakasleak trebatuko dira eta, bereziki, Afrikako gazteak ahaldunduko dira, klima-aldaketari aurre egiteko gaitasuna indartuz”. Proiektuan Europako eta Afrikako zazpi bazkidek hartzen dute parte, Garapen Jasangarriaren Helburuekin konprometitu daudenak: Politeknika Txorierri eta Asociación Mundus (Espainia), Apro Formazione (Italia), Don Bosco Provincialat

(Ruanda), Harare Institute of Public Health eta Simukai Vocational Skills Training Hub (Zimbabwe), eta Apodissi (Namibia).

“Proiektua hasteko, Ruandara joan gara eta bertan zuzeneko harremana izan dugu gure bazkide afrikarrekin. Era berean, bertako Lanbide Heziketako zentroen errealitatea ezagutu dugu eta kolaborazio emankorra izateko oinarriak finkatzen hasi gara”, azaldu dute. Horrela, lehenengo fase honetan, txosten konparatibo bat garatzen dabilta, beharrianak antzemateko eta heziketa pedagogikoaren edukiak diseinatzeko abiapuntua izango dena. “Heziketa hori hiru oinarri ditu: Erronketan Oinarritutako Ikaskuntza, Gizarte Ekintzailtza eta Irakaskuntza Metodologia Inklusiboak. Gainera, Lanbide Heziketako irakasleentzako MOOC ireki bat ere egingo da, eta bertan gaitasun digital nagusiak jorratuko dira, hala nola IoT sentsoeren erabilera, Arduino, datuen analisia, eguzki-energia-

ren bisualizazioa eta monitorizazioa eta airearen eta uraren kalitatea. Prestakuntza amaituta, ziurtagiri digitalak banatuko dira eta aurrez aurreko saioak egingo dira Espainian, Italian eta Zimbabuen. Bestalde, aurreikusi da benetako kasu praktikoak garatuko direla eta Smart Step onlineko ikaste-plataforma abian jartzea. Plataformak baliabide didaktikoak, aholkularitza-saioak, foroak eta lana eskainiko ditu doan, eta Afrikako zein mundu osoko Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzat egongo da eskuragarri.

“Politeknika Txorierrik berresten du kalitatekoa, berritzailea, digitala eta jasangarria den Lanbide Heziketarekin. Pozik gaude, esperientzia eraldatzaile honen parte garelako, eta baikorrak gara etorkizunari begira. Gure ustez, kontinente arteko lankidetzeta funtsezkoa da belaunaldi berriak jasangarritasunaren, gizarte-ekintzailatzaren eta inklusioaren balioetan hezteko”.



RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGAR APP-A



TAXI FEMADE

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Irakaskuntza Txakolina

Protagonistas de origen



Irakaskuntza Txakolina

Goititza auzoa, 37 (LEZAMA)

94 455 61 46

BERRI LABURRAK

Sondikak eta Deriok eremu tentsionatu izendatzeko hiru irizpideetatik bat betetzen dute

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak aurkeztu du Euskadin eremu tentsionatu izendatu daitezkeen udalerrien zerrenda eguneratuta. Zerrenda horren arabera, 32 udalerri batetzen dute eremu tentsionatu izendatzeko irizpideren bat, eta haien artean Sondika eta Derio daude.

Zehatz-mehatz, hiru irizpideetatik hau betetzen dute: etxebizitza-merkatuko tentsio eremu izendatu aurreko bost urteetan etxebizitzaren alokairu-prezioak izandako hazkunde metatuaren ehuneko gutxienez ehuneko hiru puntu handiagoa izatea dagokion autonomia-erkidegoko kontsumo-prezioen indizearen hazkunde metatuaren ehuneko bano. Izan ere, *Euskadiko eremu tentsionatuei buruzko txostena. 2025eko apirila* dokumentuaren arabera, Derion etxebizitza alokatzearen batez besteko prezioa 643 eurokoa zen 2018an, eta 771,2 eurokoa, 2023an; beraz, % 19,9ko igoera izan du. Sondikan etxebizitza alokatzeak, bestalde, batez beste 597,3 euro kostatzen zituen 2018an, eta 784,7 euro, 2023an; hortaz, % 31,4 igo da.

Gainerako bi irizpideak dira, alde batetik, tentsio eremu izendatu aurreko bost urteetan, etxebizitzaren salerosketa-prezioa gutxienez ehuneko hiru puntu handiagoa izatea dagokion autonomia-erkidegoko kontsumo-prezioen

indizearen hazkunde metatuaren ehuneko bano; eta beste aldetik, hipotekaren edo alokairuaren kostuak aurrekontu pertsonalean edo bizikidetz-unitatearen aurrekontuan duen batez besteko kargak gehi oinarritzko gastuek eta hornigaiek familien batez besteko diru-sarreraren edo batez besteko errentaren % 30 gainditzea.

Gaur egun, zazpi udalerri tentsionatu daude Euskadin: Barakaldo, Donostia, Errenteria, Galdakao, Irun, Lasarte-Oria eta Zumaia. Aipatutako txostenean jaso denez, zerrendan sartu litezke Gasteiz, Gipuzkoako 14 udalerri -Arrasate, Bergara eta Zarautz, adibidez- eta Bizkaiko 17 udalerri - Sondika eta Derioz gainera, Balmaseda, Santurtzi eta Elorrio, esaterako-. Txostena <https://observatorioivienda.euskadi.eus> webgunean kontsultatu daiteke.

Denis Itxasok, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak, adierazi duen moduan, “eremu tentsionatuak izendatzeko, Eusko Jaurlaritzak udalekin egindako itunean oinarritutako eredu bat aukeratu du, eta udalak dira hiru urteko ekintza-plana egiteko arduradunak. Helburua da babestutako etxebizitzaren eskaintza handitzea, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzak prest dago babes ofizialeko etxebizitzak alokairu-erregimenean eraikitzen laguntzeko”. Horri lotuta, udalei eskatzen die “lurzoruak detektatzeko eta eskuragarri

jartzeko, udal-ordenantzak aldatzeko, etxebizitza hutsen fenomenoari aurre egiteko estrategiak ezartzeko, eta udal-eskumeneko beste neurri batzuk hartzeko; horiek gabe tentsionamendutik ateratzea zaila izango litzatekeelako”. Sailburuaren esanetan, ikuspegi horrek beharrezkoak ez diren konfrontazio juridikoak saihesten ditu eta etxebizitzako politika kooperatiboa eta eraginkorra eraikitzea ahalbidetzen du. Era berean, azaldu duenez, “eremu tentsionatu izendatzeak ahalbidetzen ditu tentsionagarri moduan identifikatutako udalerrientzat etxebizitza-politika publikoaren esku hartze espezifikoak, eta, ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak lege-erreformak sustatzen dabil, eremu tentsionatuaren figurari irismen handiagoa emateko”.

Beste alde batetik, <https://eremutentsionatua.euskadi.eus> webgunea ipini da abian, Euskadiko bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuei buruzko informazioa emateko. Bertan informazio eguneratua jasotzen da eremu tentsionatu izendatutako udalerriei buruz eta horietako bakoitzak datozen hiru urteetan bizitegi-tentsioari aurre egiteko garatutako dituen ekintza-planei buruz. Halaber, gida bat dago webgunean, sarritan egiten diren galderak batzen dituen, eremu tentsionatuek maizter eta jabeei nola eragiten dieten jakiteko.

BERRI LABURRAK



Herritarrak eta taldeak izango dira Lagatzu Eguna - Euskal Jaiaren protagonistak

Lagatzu euskara elkarteak antolatuta, ekainaren 28an Lagatzu Eguna - Euskal Jaia ospatuko dute Zamudion. Antolatzaileek aurreratu dutenez, aurreko edizioetako formatuarekin alderatuta, aurtengo formatua ezberdina izango da. “Karpa handi baten azpian ikuskizuna egin beharrean, Arbolantxa kalean eta inguruko kaleetan herriko taldeek nahi dutena erakutsiko dute. Antzerkia izan daiteke, edo abesti bat... Baina beti ere euskararekin lotuta”.

Lerro hauek idaztean bederatziz taldek eman dute izena egitasmoan. “Era berean, gune berean azoka bat atonduko da eta bertan ere taldeek nahi dutena erakutsi edo salduko dute. Adibidez, Hiru Bat dantza-taldeak euskal jantziak ipiniko ditu ikusgai, eta perretxikoak dastatu ahalko

dira Zizegorri elkartearen eskutik. Taldeek nahiago duten ekintzatan hartu ahalko dute parte, batean zein bestean edo bietan”. Ekintza goizeko 11etan hasiko da, eta aurreikuspenaren arabera, ordubete eta 30 minutu iraungo du. “Ekintza grabatuko dugu eta erreportajea egingo dugu. Amaia Uribe Astorkia kazetariak gidatuko du erreportajea. Gero, lana herri osoaren eskura ipiniko dugu lotura batean, nahi duenak eskuratu dezan”. Aurtengo Lagatzu Eguna - Euskal Jaiaren leloa edo izenburua “Gure jendea” da. “Ekitaldian parte hartzen duten taldeek zamudioztar asko eta asko ordezkatzan dituzte, eta, hortaz, pentsatzen dugu gure herritarrak hor daudela; Zamudioko jendearen erakusgarri bat izango da”.

Ekintza nagusiaren ondoren, taldeek eta herritarrek tarte librea edukiko dute

herri-bazkarira arte. “Bazkaria 15:00etan izango da Lehendakari Agirre plazan, eta jai-giroa herriko beste alde horretara ere zabalduko da. Ondoren, Broken Izotz herriko taldeak lagunduta euskal abestiak kantatuko ditugu, eta umeentzako zurezko jolasak ere egongo dira. Amaitzeko, erromeria izango da Trikitzio taldeak girotuta”. Lagatzu euskara elkarteak euskal jantziak jantzita joateko deia egin die herritarrei. “Espero dugu animazioa egotea eta, betiko moduan, Lagatzu Eguna - Euskal Jaia erreferentea izatea. Izan ere, jende askok esaten du herriko jairik onena dela. Baina batez ere helburu du euskararen erabilera. Horregatik, jai hutsa izan ez dadin, herritarrei eskatzen diegu ahalegina egiteko eta dakigun euskara hori, ona zein txarra izan, erabiltzeko”.

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Pedagogia
Kiroprasajak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñeri etorbidea, 9 - Leizaola Antzara eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 957 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraitu Facebook-en

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LA MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik

Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

Ford **Goiri'78**
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

Bosch Service **ATEKA**
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txoriñeri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

BERRI LABURRAK

Alokairu eskuragarriko 88 etxebizitza babestu eraikitzen hasi dira Derion

Eusko Jaurlaritzaren eta Sukia eraikuntza-enpresaren arteko hitzarmen bati esker, alokairu eskuragarriko 88 etxebizitza babestu eraikiko dira Aldekone Goikoan, Derion. Eraikitze-lanak hasi berri dira eta, aurreikuspenaren arabera, 2026ko hirugarren hiruhilekorako amaituta egongo dira. Beraz, urte horren amaieran hasiko dira maizterrentzako esleipenak.

Zehatz-mehatz, sei solairuko bi eraikin altxatuko dira sestra gainean, eta apartakaleku eta trastelekuetarako soto-solairu komun bat izango dute. Eraikin bakoitzak bi atari izango ditu eta haietara bide publikotik sartu ahalko da. Etxebizitzak logela bakarrekoak edo logela bikoak izango dira, eta edukiko dituzte egongela-jangela, sukalde integratua, bainugela eta esekitokia. Bestalde, lehen solairuak eta atikoak terraza zabala izango dute, eta teilatupeko solairuetan mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako lau etxebizitza aurreikusi dira. Azaldu-takoaren arabera, etxebizitzaren sustapena “industrializazio-sistema partzial batekin egiten dabilta, A bikoitzeko energia-ziurtagiria izango du eta, hortaz, bermatuko dira eraikuntzaren eraginkortasuna, energiaren aurrezpena eta ingurumen-jasangarritasuna”.

Etxebizitzak alokairu eskuragarriko erregimenean eskainiko dira, eta hortaz, merkatukoak baino merkeagoak diren errentak ordainduko dira. Prentsa-ohar batean orientabidea eman du Derioko Udalak: “Udalerrian, alokairuaren batez

besteko prezioa merkatu libreko alokairuaren prezioaren % 75 ingurukoa da. 2022ko araudiaren arabera, etxebizitza beharra dutenek eskuratu ahalko dituzte etxebizitza horiek, baldin eta haien urteko diru-sarrerara haztatuak 21.000 eta 39.000 euro artekoak gehi araudia argitaratu zenetik aintzat hartutako inflazioaren doikuntza badira. Gutxienez etxebizitzaren % 50 izango da 21.000 eta 30.000 euro arteko diru-sarrerara haztatuak dituzten pertsonentzat”. Udalak leku bat atonduko du 2026ko urtarrilean, etxebizitzak eskuratzeko interesa duten herritarrei informazioa eta orientazioa emateko.

Egitasmoa aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzak, Derioko Udalak, Sukia eraikuntza-enpresak eta Q-Living higiezin-inbertsioak kudeatzeko enpresak. Esan moduan, proiektua “2022ko urriaren 14ko Aginduaren baitan kokatzen da, diru-sarrerara ertainak dituzten pertsonentzako alokairu eskuragarria sustatzen duena eta gutxienez 50 urtean erabiltzeko konpromisoa ezartzen duena. Ekimenak lankidetzak publiko-pribatua indartzen du eta Aldekoneren garapen babestuko ereduari jarraipena ematen dio”.

Denis Itxasok, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak, azpimarratu zuen moduan, alokairu eskuragarriaren formulak erantzuna ematen die eskatzaile arruntei: euren sarrerak direla-eta etxebizitza sozial bat eskuratzetik kanpo geratzen

dira, baina ez dute gaitasun ekonomiko nahikorik merkatu librean hipoteka ordaintzeko edo etxebizitza erosteko. “Bilboko metropoli-eremuan dagoenez, alokairuaren prezioak zuzeneko eragina du Derion. Horregatik, are zentzu handiagoa du halako proiektuak bultzatzeak bertan bultzatzeak, eta indartzen du gaur egungo egoitza-premiaren profilei erantzuteko dugun konpromisoa”. Bere esanetan, “alokairu eskuragarria ohikoa da Europako beste herri batzuetan, eta tarteko sektoreentzat ere landu behar da, dagoeneko arazoa ez baita soilik klase zaurgarrienena”.

Beste alde batetik, Esther Apraiz Derioko alkateak azpimarratu zuen udalak urte asko daramatzala babestutako etxebizitza bere estrategiaren erdigunean jartzen. Horrela, 2014tik hona, “250 etxebizitza babestu baino gehiago sustatu dira Aldekonen, eta 2026rako 379 izango dira guztira. Hori hainbat eragileren apustu irmoa, etengabea eta aursarta izan da. Erakunde moduan, gure erantzukizuna da beharrian handiena duten pertsonen laguntzea eta erraztea, eta horixe egiten gabilta”. Azkenik, Joseba Cedrún Sukia enpresaren zuzendari nagusiak nabarmendu zuen “eragile publiko eta pribatuaren arteko lankidetzari esker, etxebizitza babestuen garapenean Aldekone Euskadiko erreferente” bihurtu dela. Eraikitze-lanak amaituta, Q-Living enpresak eraikina esleitzeko eta kudeatzeko ardura izango du.

BERRI LABURRAK

200 kirolari batuko dira Euskal Backyard Ultra Loiu

Loiuko Udala eta Kukulu mendi-taldeak elkarlanean, ekainaren 7an eta 8an Euskal Backyard Ultra proba egingo da udalerrian. Proban 200 kirolarik hartuko dute parte, eta 6,7 kilometroko eta 200 metroko desnibeleko ibilbideari egin beharko diote aurre.

Fernando Perez da antolatzaileetako bat, eta azaldu duenez, Euskal Backyard Ultra Loiu bi modalitate izango ditu. Alde batetik, ultra modalitatea egingo da, buelta-mugarik eta amaitzeko ordurik ez duena. Irteera eta helmuga Zabaloetxeko frontoian ipiniko dira, eta asfaltoko bi kilometro kenduta, parte-hartzaileak mendiko bidexketatik ibiliko dira. Ordubete izango dute ibilbidea egiteko, eta lortu ezean, deskalifikatuko dituzte. Ordubete pasatuta, berriro joango dira irteerara eta ibilbidea berriro egin beharko dute. Proba amaituko da ibilbidean pertsona bakar bat dagoenean eta gainerako parte-hartzaileek baino buelta bat gehiago ematen duenean; lortzen ez badu, ez da irabazlerik egongo. “Hortaz, eta oso parte-hartzaile onak eta indartsuak izango ditugula kontuan hartuta, probak 24 ordu baino gehiago iraun lezake. Bestalde, esan beharra dago 200 metroko desnibela dela-eta proba gogorra izango dela”. Esate baterako, fabritoen artean daude Jose Manuel Ruiz Verdugo katalana, Espainiako txapelduna dena eta 60 bueltako errekorra duena, eta Mungiako Ibon Ganboa, hainbat proba irabazi dituen eta 2021etik hona Galiziako probaren errekorra duena: 38 buelta. Beste alde batetik, maratoni kategoria ere egongo da, eta parte-hartzaileek zazpi buelta eman beharko diote ibilbideari. Azaldu moduan, azken mo-

dalitate hori egin ohi da backyard ultra proba ezagutzera emateko.

Izena ematea itxita dago jadanik, eta guztira 200 kirolari batuko dira Loiu proban: 150ek ultra modalitatean hartuko dute parte; eta 50ek, maratoni modalitatean. Gehienak euskaldunak dira, baina 80 parte-hartzaile inguru Espainiatik eta Frantziatik etorriko dira. Txorierriko ordezkariak ere egongo dira; zehatz-mehatz, Sondika, Loiu, Derio eta Lezamako 11 parte-hartzaile. Txapeldunak eta txapeldunordeak trofeo bana eramango dute, eta lehen, bigarren eta hirugarren postuetan gelditzen diren taldeentzat ere egongo dira trofeoak. Era berean, buelta gehien egiten duen emakumezkoak trofeoa jasoko du, baita buelta gehien egiten dituzten Txorierriko gizonezkoak eta emakumezkoak ere.

Perezen esanetan, helburua da Backyard Ultra ez ezik, Loiu ere ezagutzera ematea, “ibiltzeko mendi eta leku polit-politak ditu eta”. Ultra trail-modalitatea da Backyard Ultra proba, eta Estatu Batuetako Gary Cantrellek (Lazarus Lake moduan ezaguna) sortu zuen. Proba 2011n egin zen lehen aldiz Tennessean. Backyard hitzak adierazi nahi du atzeko patioa, eta Cantrellek izen hori ipini zion, zeren eta jendeak etxe ondoan egin ahal zuen ultratrail-formatua sortu nahi baitzuen. Espainiako Estatura duela sei urte ailegatu zen, Galiziara hain zuzen ere, eta gaur egun 30 proba egiten dira estatu osoan. Lehenago iragarri bazen ere, Euskal Backyard Ultra Loiu da Euskadin egingo den bigarren proba, apirilean beste bat egin zelako Usurbilen. Biak bakarrik dira Kantauri itsasoko ertzean.

Erdi Arora itzuli da Loiu

Eguraldi onak lagunduta, herri-tarrak eta bisitariak hurbildu ziren maiatzaren 23tik 25era Loiuira, hirugarren aldiz Erdi Aroko azoka antolatu zuten eta. Azoka bariku arratsaldean zabaldu zen, eta asteburu osoan egitarau oparoa disfrutatzeko aukera egon da bertan: desfileak, antzerkiak, erakustaldiak, musika... Horrezaz gainera, ohiko produktuak eta eskulanak egon ziren salgai, eta jateko eta edateko postuak ere egon ziren. Hala, Vulkano orkestrak kontzertua egin zuen zapatu gauean.



Udako campusa, Uritarra futbol- taldearen eskutik

Urtero moduan, udako campusak antolatu du Uritarra Larrabetzuko futbol-taldeak. Campusa 2009. urtetik 2019. urtera bitartean jaiotako ume eta gazteentzat da, eta hiru astetan egingo da: ekainaren 23tik 27ra, ekainaren 30etik uztailaren 4ra eta uztailaren 7tik 11ra. Ordutegia izango da 10:00etatik 14:00etara, baina 9:30etik aurrera zaintza-zerbitzua egongo da. Aste bakoitzak 100 euro balio ditu, eta prezioaren barne daude ekipamendua eta hamaiketakoa. Izena ematea ekainaren 15a baino lehen egin behar da.

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

ADARVE KAFETEGIA

Gesariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ASTIKENEMOTOR

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



Kaotiko taldea.

ZAMUDIOKO JAIK

Orquesta Vulkano eta Kaotiko, Pazko jaietan

Ekainaren 6tik 9ra bitartean, Pazko jaiak ospatuko dituzte Zamudion, eta Eguraldi Ona jai-batzordeak eta Zamudioko Udalak herritar guztientzako jai-egitaraua antolatu dute. Besteak beste, umeentzako jokoak, txapelketak eta bertso-saioa egongo dira. Musika-taldeen artean Orquesta Vulkano eta Kaotiko egongo dira.

Txupinazoa bariku arratsaldean botako dute, eta kalejiraren eta karameluen banaketaren ostean, perretxikoak dastatzeko aukera egongo da Leizaola Lehendakaria plazan. Dj Eduk eta Dj Tarak musika ipiniko dute bertan 21:00etatik aurrera, eta Orquesta Vulkanoren ikuskizuna 23:30ean hasiko da Sabino Arana plazan. Zapatuan, bestalde, Sukalki Eguna izango da. Goizeko 9etan zabalduko da sukalki txapelketan zein tortilla

txapelketan izena ematea, eta sariak 13:30ean banatuko dira. Gainera, goizean zein arratsaldean umeentzako jokoak egongo dira Bidekoetxe parkean, eta 16:00etan, erromeria Kittu taldearen eskutik. Arratsaldean ere abesbatzen kontzertua izango da San Martin elizan. Bertan hauek abestuko dute: Soinu Bidea (Basauri), Soroabal abesbatza (Portugalete) eta Zamudioko Kamara Korala eta Zoli abesbatza. Bestalde, Orkeska Elektrotxarangkak girotuko ditu herriko

txokoak, eta agertokira igoko dira Kaotiko eta Perlata taldeak. Ondoren, Dj Zatzazek ipiniko du musika.

Domeka goizean, meza egongo da, eta zumba-saioa, Agirre Lehendakaria plazan. Bestalde, eguerdian emakumeen goi mailako esku-pilota jaialdia egingo da pilotalekuan, eta *Ez da kasualitatea* bertso-jaialdia arratsaldean. Jaiak amaitzeko, meza eta kopaua elizpean egongo dira astelehen goizean, eta karta txapelketa, arratsaldean.

ile-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txipi Txipi

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

PATXI KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nafarroa poligonoa - Etxebarri 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 587 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbete:
8:00-13:30

Unbe plaza, 1 behe
Zamudio
944 520 419

PAZKO JAIK 2025

BAGILAK 6 – 9 JUNIO

BARIKUA 6

- 19:00** Txupinazoa eta kalejira.
Karmeloan banaketa.
- 20:00** Perretxikoen dastaketa
Leizaola Lehendakaria plazan.
- 21:00** DJ Edu eta Tara Leizaola
Lehendakaria plazan.
- 23:30** Orquesta Vulkano Sabino
Arana plazan.

ZAPATUA 7 SUKALKI EGUNA

- 09:00** Sukalki eta tortilla
txapelketetarako inskripzioak.
- 11:00** Umeentzako jokoak
Bidekoetxe parkean.
- 13:30** Sukalki eta tortilla txapelketen
sari banaketa.
- 15:00** Umeentzako jokoak
Bidekoetxe parkean.
- 16:00** Kittu erromeria
Bidekoetxe parkean.
- 17:00** Umeentzako jokuak
Bidekoetxe parkean.

- 19:30** Koralak eleizan
- Zoli Abesbatza (Zamudio).
- Soinu Bidea (Basauri).
- Sorozabal abesbatza (Portugalete).
- Zamudioko Kamara Korala (Zamudio).
- 20:00** Orkestra Elektrotxaranga Zamudiotik.
- 23:30** Kaotiko + Perlata + DJ ZATZAZ
Sabino Arana plazan.

DOMEKA 8

- 11:00** Meza nagusia.
Zumba Agirre Lehendakaria plazan.
- 12:00** Goi mailako emakumeen esku pilota
jaialdia frontoian.
- 17:30** Hiru Bat Dantza Taldea Agirre
Lehendakaria plazan.
- 19:30** Bertso jaialdia "Ez da kasualitatea"
Agirre Lehendakaria plazan.

ASTELEHENA 9

- 12:00** Meza eta luntxa elizpean.
- 16:00** Karta txapelketa.



SONDIKAKO JAIK

“Sondikan dena prest dute jaiez gozatzeko”

Sondikoztarrak jaietan izango dira ekainaren 20tik 24ra bitartean. San Joan suaren inguruan batuko dira beste behin ere, eta, gainera, herritar guztiek disfrutatzen moduko jai-egitarau oparoa izango dute. Besteak beste, txapelketak, ikuskizunak, kontzertuak eta jolasak antolatu dira adin-tarte guztietako sondikoztarrak asko dibertitu daitezen.

“**J**aian helburua da jende guztiak disfrutatzea, eta horretarako, adin-tarte guztientzako ekintzak prestatu ditugu”, azaldu du Deñe Sarria kultura-zinegotziak. “Jai-egitaraua osatzeko orduan, herriko hainbat elkarte egindako proposamenak eta herritarrek egindako iradokizunak hartu ditugu kontuan”. Gainera, azpimarratu duenez, “herriko elkarteak itzelezko garrantzia dute gure jaietan, eta haien laguntzari

esker ekintza asko antolatu ahal izan ditugu”. Hortaz, bost egunetan zehar ekintza-sorta zabala egongo da Sondikan, eta herritar guztiek izango dute zer gozatu.

Ohi moduan, Gorondagane eskolako gurasoen elkarteak umeentzako ekintzak antolatu ditu ekainaren 20ko barietate arratsalderako. Ondoren, 19:00etan, kuadrillak Lehendakari Agirre kaletik igoko dira San Joan landara, elektrotxaranga batek lagunduta. Naizen elkar-

teak txupina eta pregoia botako du, eta ondoren kuadrillentzako probak egingo dira. “Iaz oso harrera ona izan zuten kuadrillentzako ekintzek eta horregatik animatu gara aurten ere proposatzera”. Jaietako lehen eguna amaitzeko, “Hay poco rock and roll” bertsoien kontzertuan Extremoduro, Platero y Tú eta Mareta taldearen kantak entzungai egongo dira, eta erromeria ere izango da Beranduegi taldeak girotuta.

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com



EGITARAUA

20, barikua

15:00-17:00 **Puzgarriak**,
IGEren eskutik.

17:00-18:30 **Diskofesta**,
IGE antolatua.

19:00 **Kuadrillen igoera**
elektrotxarangarekin.

19:45 **Txupina eta pregoia**,
Naizen elkartearen eskutik.

20:00 **Kuadrillentzako probak.**

Ondoren, **hot dog-ak banatzea.**

22:30 **"Hay poco rock and roll"**
bertsioen kontzertua: Extremoduro,
Platero y Tú eta Marea.

Erromeria: **Beranduegi** taldea.

21, zapatua

09:30-10:15 **"Pikeko harresia" IV.**
Igoeran izena ematea (CD Sondika
taldearen txosnan).

10:00 **Sukalki Txapelketan izena ema-**
tea (Hegalariak taldearen txosnan).

10:30 **"Pikeko harresia" IV. Igoera**
Bizikletaz.

11:00 **Kalejira**, Ipar Elaiak txistu-
taldeak girotua.

11:00-13:00 **Herri-kirolak: ikuskizuna**
eta umeentzako jolasak.

13:00 **Apar-festa.**

14:30 **Sukalkia aurkeztea.**

16:00 **Mus Txapelketan izena ematea**
Hegalariak taldearen txosnan.

16:30 **Mus Txapelketa.**

17:00 **Gimnasia erritmikoaren**
erakustaldia, CD Danaren eskutik.

18:00 **Skate-tailerra**, Txoriskaters
elkarteak antolatua.

18:00 **"Txorierriko gazteekin"**
III. Padel Txapelketaren finala.

18:00-19:30 **Arrasti-pasa,**
Dj Blessivek girotuta.

18:00 **Tolin**, Jubilatuen Etxean.

18:30 **Tortilla Txapelketan izena ema-**
tea (CD Sondika taldearen txosnan).

19:00 **Hirukoak jaurtitzea**,
Gorondabeko kiroldegian,
Txorierri Basket taldeak antolatua.

20:00 **Tortillak aurkeztea.**

22:00 **Dj Vithy + Gora Herria**
erromeria-taldea + Dj Vithy.

22, domeka

10:00 **Herri-lasterketan izena ematea.**

10:30 **Herri-lasterketa**, Goiri plazan.

11:00 **Kalejira**, Ipar Elaiak
txistu-taldeak girotua.

12:30 **Dantza-agerraldia**, Gorantza-
ileak dantza-taldeak antolatua.

13:30 **Motorren kontzentrazioa**, Mapa-
che motozaleen elkartearen eskutik.

15:00 **Herri-bazkari solidarioa.**

16:00-18:00 **Eingo taldea.**

18:00 **Igel-toka solidarioa**,
Hegalariak taldeak antolatua.

19:00-20:00 **Karaokea.**

23, astelehena

11:00 **Iron Team.**

12:00 **Puzgarriak.**

18:00 **Kiki, Koko eta Moko pailazoak:**
Txondatatxondai dibertsio eta jai"
dantzak, jokoa eta animazio-festa.

20:00-22:00 **Fanfarrea eta pintxo-**
potea tabernetatik.

22:00 **Zuziak banatzea** liburutegian.

22:30 Kalejira: **Akelarre antzerki**
ibiltaria.

23:15 **San Joan sua**, Pentagrama eta
Gorantzaileak taldeen eskutik.

24:00 Kontzertua: **Ia Bai taldea** (70eko
eta 80ko hamarkadetako musika).

24, martitzena

12:00 **Meza eta aurrekua.**

12:30 **Fanfarrea** herritik.

13:30 **Erretiratuentzako kopaua.**

18:00 **Sariak banatzea.**

19:30 **Chimberos** taldea.

Azken traka eta jaiak amaitzea.





Ekintzaz beteta etorriko da zapatua. “Pikeko harresia” igoeraz gainera, kalejira eta herri-kirolak egongo dira goizean. Era berean, umeentzako jolasak eta apar-jaia egingo dira. Sukalki eta mus txapelketen ostean, gimnasia erritmikoaren erakustaldia eta skate-tailerra izango dira. “Txorierriko Padel Txapelketaren finala, bestalde, San Joan jaietako egitarauaren baitan jokatu da, eta arratsaldean neska dj bat izango dugu: Dj Blesive hain zuzen ere”. Tolinek ikuskizuna egingo du Jubilatuen Etxean, eta tortilla txapelketa egingo da landan. Horrezaz gainera, Gorondabeko kiroldegira hurbiltzen denak hirukoitzak bota ahaliko ditu, eta zapatua biribiltzeko, musika egongo da Dj Vithyren eta Gora Herria erromeria-taldearen eskutik.

Domeka goizerako antolatu dira herri-lasterketa, kalejira, dantza-agerraldia eta motorren kontzentrazioa. “Aurreko urteko jaietan moduan, herri-bazkaria

solidarioa egongo da Naizen elkartearen alde”. Bazkaria BISUBI sukaldarien fundazioak prestatuko du. Nolanahi ere, hura ez da izango domekako ekintza solidario bakarra. Izan ere, aurreko urteetan egin denez, igel-toka solidarioa egingo da arratsaldean eta batzen den dirua Ataxia de Friedrich gaixotasuna ikertzen laguntzera bideratuko da. Eingo taldeak arratsaldea girotuko du, eta eguna bukatzeko, karaokea egongo da.

SUA

Astlehenean, ekainak 23, beste behin ere San Joan sua piztuko dute izen bereko landan, baina hori baino lehen, umeentzako ekintzak egongo dira goizean eta arratsaldean. “Ekintzak herri hurbilduko ditugu, eta arratsaldean pintxo-poteoa egingo da herriko tabernetatik. Gero, 22:00ak aldera, zuziak banatuko dira liburutegian eta guztiok elkarrekin kalejiran igoko gara San Joan

landaraino sua piztera”. Zalantza barik, Sondikako jaietako ekintzarik esanguratsuenetakoa da, eta su inguruan herritar asko batzen dira eguzkiari indarra emateko eta zaharra erretzeko. Txingarrak amatatu berri, martitzenean meza eta erretiratuentzako kopaua egongo da. Era berean, hainbat txapelketaren sariak banatuko dira: Sondika Pintxotan, Balkoi Apainduak, Kuadrillak eta Emakume Kontseiluko Logo-tipo Lehiaketa. Chimberos taldearen musika-saioaren ondoren, azken traka botako da eta jaiak amaituko dira. Bukatzeko, aipatu beharra dago bari-ku gauean zein zapatu gauean etxera lagunduta itzultzeko zerbitzua egongo dela 01:30ean, 02:30ean eta 03:30ean. Eraso matxisten kontrako protokoloa ere izango da, eta erasorik ikusi edo jasanez gero, aipatutako zerbitzuko pertsonengana zein txosnetako arduradunengana joko ahaliko da.

**ANIMAZIOAREN MUNDU HARRIGARRIAN
AMESTEN DUZUN GUZTIA ESKURA DUZU
IRRIKAZUREKIN!**

APAR-FESTA · PUZGARRIAK · ESKOLAKO JAIK
TAILERRAK · ROBOTIKA · DISKO-FESTA

irrikazu
ANIMAZIOA

irrika@irrikazu.com · 656 786 959 · 688 892 013
www.irrikazu.com

MUSETI
JOSITEGIA

Musei Jositegia logo with a heart shape

**Bordatuak · Konponketak
Kurtsoak · Opariak**

JUSTO AJURIA 1, EZKERREKO LOKALA · SONDIKA
623957729 (Ainara)

Sondikako Jaiak San Juan 2025

ekaina 20-24 junio

Kuadrillarteko norgehiagoka /
Kontzertuak /
Umeentzako jokoak /
Herri bazkari solidarioa /
Kalejirak /
Sukaldaritza txapelketak /
Kirol erakustaldiak /
San Juan Txiki /
Kultur ikuskizunak /

eta askoz gehiago!

**Ondo
pasa!**



Kolorez beteriko bailara



BFaren laguntzarekin 2025ean hasi berri den proiektua da. Bertan, Txorierriin dauden elkarten artean sinergiak sortzea du helburu, elkarren artean zaintza, osasuna eta parte-hartzea sustatzeko. Momentuz, lau programak osatzen dute proiektu hau: “Sareak eraikitzen: eten digitala gaindituz”

Emaus fundazioa eta Derioko nagusien etxea elkartzen duena; “Kirola denontzat”: desgaitasunarekin zerikusia duten Txorierriko elkarteak kirolarekin lotzen dituen programa; “Kaleko koloreak”, immigrazioa eta gazteak elkarlanean jartzen dituen programa, eta “Gizartea eraldatzeko ahotsak” podcast txapelketa.



Tabakoaren aurkako nazioarteko eguna

Maiatzaren 31n, Tabakoaren aurkako Nazioarteko Egunean, Txorierriko Mankomunitateak hainbat ekintza eramango dira aurrera Osakidetzarekin batera; alde batetik, urtero bezala, osasun zentro guz-

tietan informazio-mahaiak jarriko dira; bestetik, Zamudioko Gaztestazioan ere informazio-mahaiak jarriko da, eta, azkenik, Emaus fundazioaren eguneko zentroan, Derion, tabakoari buruzko hitzaldi bat emango da.

Txorierri: jai osasuntsua, errespetuzko harremanak



Bizkaia Gazteak Txorierri programaren barruan, jai giroan, aisialdian edota gazteak mugitzen diren eremuetan, “Txorierri: Jai osasuntsua, errespetuzko harremanak” lelopean, Txorierriko Mankomunitateak kanpaina berri bat jarri du martxan. Izenak dioen moduan, gazteen artean balore osasuntsuak eta sozialak bultzatzea du helburu. Alde batetik informazioa eman go da azaltzeko, alkohola edota drogak

kontsumitzea erabakiz gero, zer hartu behar den kontuan, mitoak hausteko eta norbait txarto dagoenean zer egin behar den eta zer ez jakiteko; eta, bestetik, dekalogo bat egongo da eraso sexistarik gabeko jaiak izateko. Aldi berean, txosnetan, kanpainako pegatinak, erabilera bakarreko alkoholimetroak eta antis-orgailuak banatuko dira, eta, azkenik, ARGISEX! sexu aholkularitza zerbitzu berriaren informazioa ere zabalduko da.

Pertsona migratzaileei harrera egiteko Txorierriko Protokoloa



Txorierriko Mankomunitateak, BILTZEN-Gizarteratzea eta Kulturaren Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuarekin batera, pertsona migratzaileei harrera egiteko protokoloa osatzeko prozesua martxan jarriko

du. Prozesu horren helburua pertsona migratzaileen beharrak ezagutzeaz gain, harrera protokolo bat diseinatzea da. Txorierriko hainbat eragilek parte hartuko dute ekainean zehar prozesu horretan.



Pala egokitua

Ekainaren 26an, Lezamako frontoian, pala egokituaren txapelketa jokatu da. Bertan, Txorierrin dauden zenbait elkartetako pertsonen parte hartuko dute, hala nola, Apnabi, Emaus edo Lantegi Batuak elkarteak. Gainera, egun horretan egokitutako beste kirol batzuk ere probatu ahal izango dira: gurpildun saskibaloia edo boccia, besteak beste. Udalekuetan edota gazteguneeetan dauden gazteei ere parte hartzeko deialdia zabaldu zaie.

Kirol taldeentzako formakuntza

Gure mankomunitatea osatzen duten udalak aniztasun funtzionala duten pertsonen bi-zi-kalitatea hobetzeko lanean ari dira azken urteetan; horretarako, jarduera fisikoan eta kirol-eremuan aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa hobetzeko asmoz, Haszten elkartearekin batera, gure udalerrietan ditugun kirol taldeei, orientabide bat proposatzen diegu, kirol egokitu eta inklusi-boan sentsibilizatzeko.

Formakuntza horrek hiru saio izango ditu, bi teoriko eta praktiko bat.

KAISHOP!

Erosi euskaraz Txorierrin



Euskara + 0 km = kalitatea



ARAMENDI GOZOTEGIA - ZAMUDIO



LUIS G. L. BUSTAMANTE FARMAZIA - LOIU



M. CARMEN JANARI DENDA - LEZAMA



MENDIA TABERNA - DERIO



PELUKERIA LARRABETZU - LARRABETZU



SONDIKA BITXI DENDA - SONDIKA



TXORIERRIKO BERBAK

Isiotu eta amatatu

Maiatzeko azken astelehenan, argindar etena gertatu zanean, berba bat egon zan guztion ahotan: *itzalaldia*. Itzali eta piztu. Horra hor egunero-egunero erabilten doguzan aditz bi. Baina, "itzali" barik, *amatatu* (*amatau, amatau, amata*) esaten dogu mendebaldeko euskaldunok. Euskal Herri luze-zabalean modu asko

dagoz ekintza hori adierazoteko: *emen-dau, itxungi, itzaldu, hil, eho...* Kontrakoa esateko, barriz, *isiotu* (*ixetu, ixitu*) eta *biztu* aditzak entzun leitekez gure inguruan.

Zoritxarrez batzuetan marra gorriak jartzen doguz: *bizkaiera* versus *batua*. Baina, ez dago lehiarik, batak bestea osatzen dau eta. Euskaltzaindiaren Hiztegiara bagoaz, esaterako, "itzali" aditzagaz bate-

ra beste honeek be ikusiko doguz: *amatatu, itzungi, iraungi*. "Piztu" aditzaren ordain gisa, barriz, beste honeek: *isiotu, biztu, irazeki, izeki*.

Gutako bakotxak erabili daizala lasai bere etxeko (edo kaleko) aditzak. Baina, euskerea aberasten daben beste moduak ezagutzen badauz, lasaia ibiliko da barietetan hangoakaz eta hemengoakaz.



Fernando Gaztañaga, Bernabe Beitia, Jose Ramón Aretxabaleta Aretxa, Jose Antonio Solorzano Aretxa II.a eta Jose Enrique Astobieta Astobi, Lauroetako Errotapione aurrean.

Errotapionekeo harri-jasotzaileak

Lauroetako errepide ertzean dago Errotapione ur-errota. Zenbait hamarkada atzera egin, eta baten batek baino gehiagok gogoratuko du ohikoa zela bertan lau mutil gazte harria altxatzen ikustea. Gazte horiek ziren Jose Antonio Solorzano Aretxa II.a, Jose Enrique Astobieta Astobi, Fernando Gaztañaga eta Bernabe Beitia, eta entrenamenduak Jose Ramón Aretxabaleta Aretxaren gidaritzapean egiten zituzten. Errotapionen berriro elkartu dira harri-jasotzaileak, elkar ikusteko eta plazak jendez gainezka zeuden garaia gogora ekartzeko.

Entrenamenduak egiten Sondikan hasi baziren ere, handik gutxira Lauroetako ur-errotara mugitu ziren, “andrea bertakoa delako”, azaldu digu Aretxak. Harria asteen bitan edo birritan, gehienez ordu batez, altxatzen zuten bertan, “ez delako komeni gehiegi altxatzea”. Entrenamenduen osagarri moduan, korrika egitera irten ohi ziren, “kaxa torazikoa lantzeko eta hobeto arnasteko”. Aretxa entrenatzaile ona eta zorrotza zela kontatu digute. “Dakigun edo genekien guztia berarengandik ikasi dugu. Entrenatzaile serioa izan da: “Bihar ez, gaur egin behar!”. “Haiek ere

Entrenamenduak egiten Sondikan hasi baziren ere, handik gutxira Lauroetako errotara mugitu ziren

ez dira txarrak izan, eta ahalegindu dira bere beharra egiten”, erantzun die entrenatzaile ohiak.

Jose Ramon Aretxabaleta Aretxak 84 urte –eta oso memoria ona– ditu gaur

egun. Harria altxatzen 17 urte zituela hasi zen. “Ni Getxokoa naiz, eta egun batean Algortatik paseoan nebilela ikusi nuen harri zahar bat iturri baten ondoan. Bada, altxatzen hasi nintzen. Gero harri-jasotzaileen erakustaldiak ikusi nituen, eta ni ere hasi nintzen”. Herri-kirolen zale amorratua izanik, aitortu digu berari benetan gustatzen zaiona aizkora dela. “Aizkora ere ibilia naiz, baina berton oso aukera gutxi zeuden eta horregatik ibili nintzen gehienbat harria jasotzen”. Idi-probetan ere ibilia da, “eta sokatiran batzuetan”.

Aretxa bere kabuz entrenatzen zen hasieran. “Gero, afizioa eta harri batzuk

zituen bat agertu zen Algortan, eta be-
rarekin entrenatzeko esan zidan. Astean
behin entrenatzen nintzen. Txapelkete-
tan hasi nintzen eta, adibidez, Elorrioko
sari irabazi nuen. Apustuak ere egin
ditut, eta batzuk irabazi ditut, eta beste
batzuk galdu”. Fama hartuta, Euskal He-
rri osoan ibili zen erakustaldiak egiten,
batez ere Bizkaian: plazan 397 bider egon
da. “Saioak ere antolatu ditut, 200 baino
gehiago, eta mikrofonoan egon naiz”.
Plaza noiz utzi zuen ez du gogoratzen,
baina badaki Herri Kiroletako Bizkaiko
Federazioan sartu zen garaian izan zela.
“Bi legealditan izan nintzen presidente;
guztira zortzi urte”. Leioako eskolako
entrenatzaile ere izan da. “Berrogeita
hemeretzi pertsona-edo entrenatu ditut”.
Administraria ofizioz, *Deia* eta *Gaceta del
Norte* egunkarietan kronikak idatzi ditu
herri-kirolei buruz, eta *Radio Juventud*
irratiko kirol-saioetan ere hartu du par-
te. “Lau mila eta bat proba ikusi ditut
nire bizitzan”. Haien artean gogoratzen
du *Luxia* eta Latasa aizkolarien arteko
norgehiagoka. “Donostian izan zen eta
plazan 17.000 pertsona batu ziren; nik 18
urte nituen”. *Aretxak Deporte Rural 1956-
1990* liburua du idatzita.

PLAZAK LEPORAINO

Garai hartan zaletasun handia zegoen
herri-kiroletarako. Plazak leporaino bete
ohi ziren, eta apustu handiak egiten zi-
ren. “Dirutza irabazten zen”. 1970ean
Endañetaren kontra egin zuen lehen de-
safioan, esaterako, 3.000 pertsona batu



Jose Antonio Solorzano Aretxa II.a



**NAHI
DUZUN
SUKALDEA**

20 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.



IN | SUKALDEAK
insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio



Fernando Gaztañaga



Jose Enrique Astobieta Astobi

ziren plazan. Azken erronka ere Endañetaren kontra egin zuen. “Esku batekin 150 kiloko harria 21 aldiz jaso behar genuen, zazpi minutuko hiru txandatan. Berak harri kubikoa, eta nik zilindrikoa. Bentaja ikaragarria eman zidan arren, 25 eta 21 irabazi zuen berak, ikaragarri ona zelako”. *Chiquito de Mallabiak* botatako erronka ere ekarri du gogora. “Eibarren, batzuk mahai baten inguruan geundela, esan zigun arroa bateko abantaila emanda ere gauza zela gutariko edonori irabazteko (Endañetari izan ezik). Beti berdin zebilela erantzun nion nik; eta berak esan zidan niri ere irabaziko zidala eta neuk esateko eguna eta harria. Izorrazteko, esan nion berak 181 kiloko harri errektangularra jaso behar zuela, eta nik 194 kilokoa. Eta berak erantzun zidan ez bata, ez besteak lortu ezean, ni izango nintzela galtzaile. Bada, garaile izan nintzen azkenean”.

Gaur egun Getxon bizi den arren, *Aretxa* Sondikara ezkondu zen. Behin, mendiko bidean Erandiogoikoko Jose Antonio Solorzano *Aretxa II.a* ezagutu zuen. “Erandioko *Salvador Trabudua* karrajuan beti egon da harri bat, eta be-

Euren garaian plazak leporaino bete ohi ziren eta apustu handiak egiten ziren

hin, aspertuta, altxatzen saiatu ginen. Eta horrela hasi nintzen 16 urterekin; gaur egun 72 ditut. Egun batean, *Aretxa* agertu zen eta galdetu zigun zertan genbiltzan eta Sondikara entrenatzera joan nahi genuen. Baietz erantzun, eta halan hasi ginen; Sondikan lehenago, eta gero Lauroetan”, kontatu du *Aretxa II.ak*. Bere ezizena dela-eta hau kontatu digu. “Bada, ez nekien zein izen ipini eta *Aretxak* esan zidan nahi izanez gero berea erabiltzeko”.

Errotapionen entrenamendu gogorak egiten zituztela aipatu digu. “Baina batzuk alferrak dira, eta beste batzuk, ez”, gaineratu du *Aretxak*. “Honek *-Aretxa II.a-*, adibidez, behin, entrenamendu batean, 100 kiloko harri kubikoa 100 aldiz altxatu behar zituen, baina 87 aldiz altxatu ondoren mareatu

egin zen eta barrukoa bota zuen. Gelditzeko esan nion, baina ezetz erantzun zidan, oraindik 13 bider altxatu behar zuela... Esan eta egin. Ona izan behar da horretarako”. Harriak erosten zituztela edo enkarguz egiteko eskatzen zutela kontatu digute.

GORALDIA ETA BEHERALDIA

Aretxa II.ak ondo gogoratzen du lehia lehen aldiz noiz sartu zen. “1969ko maiatzaren lehen, Elorrietan”. Harrezkero Bizkaiko eta Euskal Herri osoko plazetan ibili zen eta Bizkaiko txapelduna “zortzi edo bederatzi” bider izan da, eta bi bider Euskadiko hirugarrena. “Nire markarik onena 14 arroako harri kubikoa izan da, beharbada. Arroa bakoitza da 12,5 kilo: beraz, 175 kilo. Sei minutuko hiru txanda izan ziren, eta 9, 9 eta 8 jasoaldi egin nituen: 26 guztira”. Harria altxatzeari 38 urte zituela utzi zion. “Azken plaza Algortan izan zen, 1990ean. Baina, aurretik ere, 1985ean, utzi nuen. Bizkaiko txapelketa izan zen Loium, eta harria hanka gainean erori zitzaidan eta hezur batzuk apurtu nituen. Bi urte eman nituen lehiatu barik, gero itzuli, baina 1990ean

“Gaur egungo harri jasotzaileek zerikusi gutxi dute gurekin: gimasioan entrenatzen dira”

utzi nuen behin betiko”. *Aretxa II.a* igeltseroa izan da ofizioz.

Goraldiaren ostean, beheraldia etorri zen. “Asko jaitsi zen zaletasuna”. Hala ere, badirudi harria jasotzea modan dagoela berriro, eta telebista-saioak eta guzti egiten dira. “Baina harri-jasotzaile horiek zerikusi gutxi dute gurekin”, aipatu du *Aretxak*. “Gimnasioan entrenatzen dira, eta crossfit-a egiten dute; gu beste modu batean entrenatu gara. Gainera, ondo jan dugu beti: txuleta eta arrautza pilo bat. Eta ez genuen urik edaten, ezta egundoko izerdikada botata ere. Eta berdura? Ezta pentsatu ere (kar-kar)”. Beste garai batzuetako harri-jasotzaileak izan ziren Errotapioneak.



Jose Ramón Aretxabaleta Aretxa

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**



ODOLA KANTARI-EUSKAL TRAGEPEDIA

Unai Elorriaga eta Josu Aurrekoetxearen eskutik

Ekainaren 19an · arrastiko 7etan · Baserri Antzokia · **DOAKO SARRERA**

Erdu geugaz eta egizu euskaraz!

Herriko Plaza 3 - DERIO

944 540 062

euskaltegia@txorierri.eus

**ZAMUDIOKO ETA
DERIOKO KOOPERATIBA**

Sustraiak baserrian

Berezia da Zamudio-Derioko lur-lan-gileen kooperatiba. Izatez Zamudioko kooperatiba da, baina Zamudioko zein Derioko lurrek inguratuta dago eta, horregatik, udalerrri bateko zein beste herriarrei ematen die zerbitzua. Inguruan egin beharreko konpontze-lanak ere udal bati edo besteari dagozkio, lan horiek egin beharreko lurrari dagokion udalaren arabera. Aurten, kooperatibak mende bat bete du guztien lurretan, eta mendeurrena handitasunez ospatu dute. Euren helburua da beste 100 urte gehiago ospatu ahal izatea.



T ITXASO MARINA **©** ANER MENTXAKA

Egoitz, Gaizka, Joana eta Idoia kooperatibako langileak.

San Isidro da lur-lan-gileen zaindaria eta, hortaz, mendeurrena maiatzaren 15ean ospatu zuten, zaindariaren egunean, hain zuzen ere. Goizeko lehen orduetatik festa-giroa izan zen kooperatiban: abadeak kooperatiba bedeinkatu zuen eta oparitxo bat eman zieten kooperatibaraino hurbildu zirenei eta marrazkia eraman zuten umeei. Ondoren, bazkideen arteko bazkaria egin zuten eta musikak girotutako jaitxoaz gozatu zuten eguna borobiltzeko. Gainera, 15 egunean zehar, egindako erosketen arabera, deskontu-txekeak banatu dituzte bezeroen artean, hurrengo erosketetan erabil ditzaten.

Idoia Zaratek 37 urte daramatza Zamudio-Derioko kooperatiban lanean, eta bere ahotik ezagutu dugu kooperatiba nola sortu zen. “Egia esan, ez dakit zenbat pertsonak sortu zuten kooperatiba, baina badakit zergatik. Bendejan ibiltzen ziren baserritarrek batu ziren erosketak egiteko: pentsua, ongarria, lastoa, belar-zamak... Modu horretan, erosketak merkeago egin zitzaizkion, eta gero, Bilbon, prezio lehiakorragoak ipin zitzaizkion euren produktuak saltzeko orduan”. Kooperatiba errepidetik beste aldera ipini zuten hasieran, hilerriaren inguruan, baina 1925ean gaur egungo kokapenera ekarri zuten. “Zergatik? Bada, trenbide ondoan

egonda, errazagoa zelako erosgaiak-eta deskargatzea. Are gehiago, gogoratzen dut duela urte batzuk arte errailak erai-kinaren barruan zeudela eta, hortaz, trenetako bagoiak barruraino sartzen zirela”.

Bigarren eraikina 1963an altxatu zuten. “Hasieran biltegi moduan erabiltzen zen; baina gero, 80ko hamarkadaren amaieran-edo, denda ipini zen. Gaur egun, beste eraikina erabiltzen dugu biltegi moduan, eta bertan batez ere pentsuak gordetzen ditugu. Dendan, bestalde, apur bat denetarik dugu: garbitzeko produktuak, jatekoak, animalia txikientzako gauzak... Jadantik ez dago baserri handirik, baserri txikiak

“Modernizatu behar dugu. Gainera, badugu indargune inportante bat: hurbiltasuna”

daude. Gazte batzuek, bestalde, oilo batzuk dituzte, edo ardiren bat, edo loreontzietan ipinitako ortuari batzuk... Halandaze, garai berrietara egokitu behar dugu, eta moldatu”.

Kooperatibak 129 bazkide ditu gaur egun, eta kopuru txikia da aurreko urteetako kopuruarekin alderatuta. “Gauza da ez dagoela erreleborik, gazte gutxi daude lehen sektorean”. Horrek eragin zuzena du kooperatiban, eta aurrera jarraitzeko, urterik urte berrasmatu behar du bere burua. “Modernizatu behar dugu, eta zahar geldituz doana egokitu. Gainera, badugu indargune inportante bat: hurbiltasuna”. Kooperatiba astelehenetik bari-kura, 09:00etatik 19:00etara dago zabalik; eta zapatuetan, 09:00etatik 12:00etara. Gainera, eskariak telefonoz edo whatsappen bidez ere egin daitezke. Ateak ere herritar guztientzat daude zabalik.

Zarateri gustatuko litzaioke kooperatibak beste 100 urte betetzea eta badaki, horretarako, ezinbestekoa dela gazteen-gana ailegatzea. Bost langile dira Zamudio-Derioko lur-langileen kooperatiban, baina Zaratek aurtan hartuko du erretiroa. Lasai joango da, badakielako kooperatiba esku onetan utziko duelako. Hala ere, ingurutik ibiltzen jarraituko duela esan digu. “Batzordean segituko dut, eta laguntzera etorriko naiz, hasieran zein behar nautenean”. Ea oraingo eta hurrengo belaunaldien lanari eta ardurari esker kooperatiba bigarren mendeurrenenera ailegatzen den!



Kooperatibaren antzinako argazkiak.

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontua doan

—Especialitatea:
umeak

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...

MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386

SQUAT
TRAINING CENTER

ENTRENAMENTS PERTSONALA · LESIOAK · OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA · KIROL ERRENDIMENDUA

Urkiola 4, Derio · squattrainingcenter.es · 686 917 409



ITXASO MARINA

EUSKARALDIA

EUSKARALDIA

1.400 *ahobizi* eta *belarriprest* ahalegindu dira hizkuntza-ohiturak Txorierrin aldatzen

Elkar mugituz egingo dugu lelopean, maiatzaren 15etik 25era bitartean egin da Euskaraldia-ren laugarren edizioa. Txapa paparrean, ahobizi eta belarriprestek 11 egunean saiakera egin dute euren hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta euskaraz gehiago eta erosoago egiteko. Txorierrin 1.400 pertsonak eman dute izena Euskaraldian.

Herrietako datuei dagokienez, Larrabetzun 391 pertsonak eman dute izena aurtengo edizioan (326 *ahobizi* eta 65 *belarriprest*); Lezaman, 185ek (150 *ahobizi* eta 35 *belarriprest*); Zamudion, 206k (152 *ahobizi* eta 54 *belarriprest*); Derion, 253k (164 *ahobizi* eta 89 *belarriprest*); Loiu, 117k (81 *ahobizi* eta 36 *belarriprest*); eta Sondikan, 247k (168 *ahobizi* eta 79 *belarriprest*). Hala ere, Peio Kortazar Zugazak, Euskaldiaren Txorierriko arduradunak, aipatu duenez, kontuan hartu behar da izena eman ez arren zenbait pertsonak ere hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialean parte hartu dutela. Pertsona horiek, beharbada, ez dute hainbeste datu eman nahi izan.

Kortazarren esanetan, txapa nahikotxo ikusi dira kalean, baina euskara gutxiago entzun da. Aurreko edizioetan egon den joerari erreparatuta, antolatzaileek espero zuten izena emateak behera egitea, baina beherakada ez da izan espero bezain handia. “Horretan eragin handia izan du herrietako batzordeek egindako

lanak. Egia esan, egundoko lana egin dute eta gogotsu ibili dira ekintzak antolatzen. Txorierrin 1.400 pertsonak izena eman badute, euren lanagatik izan da. Gainera, azpimarratu behar da Euskaraldia hasi baino lehen herrietan giro itzela egon dela eta hainbat ekintza antolatu direla: bakarriketak, kalejirak, trikiti-poteoak, txapak banatzeko eta izena emateko ekintzak... Horrek guztiak ere animatu ditu txorierritarrek txapa ipintzera eta euskaraz egitera”.

Euskaraldiak bi nobedaderekin etorri da aurtengo edizioan. Alde batetik, ha maikakoa berreskuratu da eta 11 lagunek osatutako taldea sortu da herrietan. “Euskararekin lotura duten eta edo euskara bultzatzen duten herritarrek izan dira, eta horrek indarra eman dio Euskaraldia-ri”. Beste alde batetik, izena ematea QR baten bidez egin ahal izan da. “Horrek ere erraztu du izena ematea, batez ere halako teknologiekin moldatzen direnen kasuan”. Azaldu digunez, ezberdina izan da aurtengo Euskaraldia. “Beste data batean egin da, eguraldi hobea egon da,

ekintza asko egin dira, herri batzuetan ere jaietan ibili dira... eta horrek aldaketa apur bat ekarri du. Espero dezagun aldaketatxoak etorkizun hurbilean ere eragina izatea euskararen erabileran. Ez dakit zenbaterainoko aldaketa izango den, baina espero dut egotea, txikia bada ere”.

Herritarrek ez ezik, entitateak ere –hau da, elkarteak eta enpresak– murgildu dira Euskaraldian; bakoitzak bere erritmora eta parte-hartze maila ezberdinetan. Guztira Txorierriko 110 entitatek eman dute izena Euskaraldian: 21, Larrabetzun; 18, Lezaman; 26, Zamudion; 22, Derion; 14, Sondikan; eta 8, Loiu. Entitate horietako bi dira Patxikoop eta Naguspea. “Euskaraldia ospakizun berezi giza bizi izan dugu”, esan du Patxikoopeko Galder Uriartek. “Langile guztiak animatu ditugu *ahobizi* edo *belarriprest* izatera, eta barne-dinamikak prestatu ditugu hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta euskaraz gehiago egiteko. Kanpora begira, kanpaina bereziak prestatu ditugu, eta tokiko ekitaldiak babestu”. Aitziber Amenedo, bestalde, Naguspeako gizarte-langilea da. Kontatu duenez, ilusio



handiz parte hartu dute Euskaraldiaren aurtengo edizioan. “Euskarari lotutako ekintzetan parte hartzea gustatzen zaigu: Korrikan, Euskararen Egunean... Gainera, zoragarria da komunitatekoa izatea eta edozein ospakizunetan edo festatan partaide izatea. Euskaraldia dela eta, programazio berezia prestatu dugu familien zein langileen eta erabiltzaileen laguntzarekin eta ederto pasatu dugu. Espero dugu ekintzak gure egunerokotasunaren parte izatea”.

HABIA

Txorierriko beste 10 enpresarekin eta bi ikastetxerekin batera, Patxikoopek eta Naguspeak bat egin dute HABIA egitasmoarekin. Horrek lan-eremuan euskara sustatzea du helburu. “Gure ingurunearekiko konpromisoa ez da soilik produktuetan edo zerbitzuan islatzen: gure hizkuntzan ere bai. Egitasmoa aukera ezin hobea da gure eguneroko jardunean euskararen erabilera bultzatzeko eta gure

balioekin bat egiten duten beste eragile batzuekin elkarlanean aritzeko. Txorierrin dagoen kooperatiba izanda, naturala da guretzat euskararen aldeko ekimeneetan parte hartzea”, azaldu du Uriartek. “Konpromisoa dugu komunitatearekin, eta horregatik garrantzitsutzat jotzen dugu egitasmoan parte hartzea, euskara gure nortasunaren zati handi bat da eta”, gaineratu du Amenadok.

Euskara modu naturalean sartu dute euren eguneroko dinamiketan, eta hainbat neurri hartu dituzte horretarako, hala nola langileentzako prestakuntza-saioak, dokumentuak eta informazioa euskaratzea, komunikazioetan euskara lehenestea, euskararako guneak atontzea eta hizkuntza-irizpideak sortzea. Euren ustez, euskarak balio erantsia ematen dio euren enpresari. “Euskarak gure nortasuna indartzen du eta bezeroekin dugun gertutasuna handitzen du. Euskara erabiltzea ez da soilik identitate-kontua:

gure inguruarekiko errespetua eta arduraz jokatzeko ere bada”, aipatu du Uriartek. Amenadoren iritziz, garrantzitsua da zentroko egoiliarrek kanpoaldearekin lotura izaten jarraitzea. “Horregatik, egoitzan euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko zerbait inportantea dakarkigu: kide izatearen sentimendua”.

Patxikoopek 80 agente, langile edo kooperatibista daude, eta horietatik 50ek egiten dute euskaraz. “Gure arteko lan-harreman asko euskaraz dira, eta bezeroekin ere euskaraz egiten dugu, batez ere Txorierriko euskaldunekin. Gainera, euskarazko arreta eskaintzea gure jardunaren funtsezko zatitzat dugu”. Beste alde batetik, Naguspeak 100 langile daude, eta % 40k euskara erabiltzen dute. “Beste hainbatek ez dute egunero erabiltzen, baina erabiltzeko gai dira, eta gainerakoek pixkanaka aurrera egiteko jarrera adierazi dute. Egoiliarrekin euskaraz egiten saiatzen gara”.

25/26 ikasturteko aurrematrikula

EUSKARA-IKASTAROAK

MAIATZA

	1	2	3	4
5	6	7	8	9
10	11	12	13	14
15	16	17	18	19
20	21	22	23	24
25	26	27	28	29
30	31			

EKAINA

	1
2	3
4	5
6	7
8	9
10	11
12	13
14	15
16	17
18	19
20	21
22	23
24	25
26	27
28	29

TXORIERRIKO AEK

ABANTAILAK

- Ikasturte honetako prezioari eutsi.
- Ordainketa malguagoa.
- Lehentasuna taldeak eratzeke orduan.

Egin aurrematrikula

Ekainaren 30era arte, www.aek.eus webgunean edo AEKren edozein euskoltegitan.

Informazioa eta izena emateko:

Txepetxa euskaltegia,
Gorbea kalea 5, beheko-Derio
94 454 39 67 - 607 59 87 94
txepetxa@aec.eus

A close-up photograph of a hand holding a blue watering can, pouring water onto green plants. The background is blurred, showing more foliage and a white fence. A yellow banner with black text is overlaid on the image.

Haz Gaitezen

Gehiagora heltzeko.
Egin zaitez AIKORLAGUN

aikor.eus/babestu

aikor.

FREEPIK

PATRICIA BARRON SAN BLAS
EHUko irakaslea eta ikertzailea
gizarte zientzietan



ARRAKALA DIGITALA

Algoritmoek hezten gaituzte?

Azken hamarkadan, digitalizazio prozesuan murgildu da ikaskuntza. Sare sozialen agerpenarekin —eta bereziki eduki labur eta ikus-entzunezkoak eskaintzen dituzten plataformen gorakadarekin; hala nola, TikTok eta YouTube Shorts— gazteen informazio-kontsumoaren ohiturak errotik aldatu dira. Tradizionalki, hezkuntzaren arduradunak familia eta eskola baziren, gaur egun, aldiz, algoritmoak bihurtu dira iritziak, emozioak eta nortasunak eraikitzen dituzten eragile nagusi.

ALGORITMOAREN LOGIKA EMOZIONALA

Plataforma digital hauetako algoritmoak diseinatuak daude erabiltzailearen arreta denbora luzeagoz atxikitzeko. Horretarako, eduki estimulu-emankorrena lehenesten dute: polemikoa, dibertigarria edo emozionalki kargatua dena. Ondorioz, gazteek jasotzen duten informazioa beti egiaztatua ez da. Horren ordez, algoritmoak erabakitzen dituen ikuspegiak —sarritan sinplifikatuak edo polarizatuak— behin eta berriro aurkezten zaizkie, “echo chamber” edo oihartzun-ku-

txak sortuz. Hau da, algoritmoek antzeko edukiak etengabe erakusten dizkiete erabiltzaileei, haien iritziak sendotuz eta ikuspegi desberdinak baztertuz.

TikTok, kasu, ez da jada dantza edo umorezko bideoen plataforma hutsa. Bertan iritzi politikoak, konspirazio-teoriak edo sexualitateari eta identitateari buruzko diskurtsoak aurki daitezke. Eduki horiek sinesgarritasuna irabazten dute formatu erakargarriari esker, nahiz eta sarritan ez duten inolako oinarri zientifikorik edo akademikorik. Ikertzaile askoren ustez, horrek informazioa joko bihurtzen du, non edukiaren balioa egiazkotasunaren ordez kontsumitzeko erraztasunaren arabera neurtzen den.

IKASKUNTZA INFORMALAREN BOTEREA ETA ARRISKUAK

OECDren eta UNESCOren txostenek azpimarratu dute ikaskuntza informalak pisu gero eta handiagoa duela gazteen bizitzetan; eta, horiek, zeharbiz, arrisku berriak pairatzera garamatzate: desinformazioaren biktimak izatera, manipulazioa sufritzera eta ikuspegi kritikoa ez garatzera.

Maiz, TikTok eta YouTube Shorts bezalako formatu laburrek ez dute testu-igurua azaltzen, eta horren faltak zailtzen du edukiaren egiazkotasuna baloratzea. Zenbait ikerketa zientifikok erakutsi dute gazteek informazio hori “automatikoki egiazkotzat” hartzeko joera dutela; bereziki edukiek emozio positiboak eragiten dizkietenean.

HEZKUNTZA BERRIEN PREMIA

Beraz, funtsezkoa da hurrengo galdera: gure gazteak nork hezten ditu? Algoritmoek hezigarriak izateko asmorik ez dute; horien helburua ez da kritika sustatzea, baizik eta arreta komertzializatzea. Horrexegatik, premiazkoa da hezkuntza formalean alfabetatze digitala sartzea; are gehiago: algoritmoek nola funtzionatzen duten ikasi behar dute gazteek, interes ekonomikoak kontuan izan beharko lituzkete, eta —zerrenda gehiegi ez luzatzearen— informazio faltsua edo manipulatuak identifikatzeko kapazak izan beharko lirakeke. Hezkuntza digitala, beraz, ez da aukera soilik, baizik eta gure gazteen askatasuna eta autonomia bermatzeko premia etiko eta soziala.



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
TERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak

640 26 84 15
94 455 42 15
Garaioltza, 74
Lezama

**NAGORE LOPATEGI**

Parte-hartze komunitarioko teknikaria

EMAUS

Emaus eta EHU: unibertsitatea truke-gune bihurtu, eraldatu dadin

Maiatzaren 7an, V. Truke Azoka egin genuen Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean, Emaus Gizarte Fundazioak Gizarte Hezkuntzako Graduarekin elkarlanean antolatuta. Azoka truke-egitasmoa izatetik haratago doa: Emausek eta unibertsitateak 2016tik hona aurrera eramaten duten elkarlanaren emaitza da, eta helburu du unibertsitate eraldatzailea eta kritikoa eraikitzea, ingurunearekin konprometituta dagoena.

Emausek ia hamarkada bat darama Gizarte Hezkuntzako Graduak irakasleekin elkarlanean, ikasleei ikasgelatik kanpoko ikaste-esperientziak hurbiltzeko, lurraldeko gizarte-errealitatearekin lotuta daudenak eta parte hartzeko metodologiak dituztenak. Truke Azoka ikuspegi horretatik hain zuzen sortu zen, eta Ikaste eta Zerbitzuaren pedagogia eta Gizarte Ekonomia Solidarioaren balioak uztartzen ditu.

Aurten, hainbat fakultatetako 90 pertsona inguru batu dira azokan –Hezkuntza, Arte Ederrak eta Gizarte eta Komunikazio Zientziak–, eta 150 truke baino gehiago egin dira, besteak beste, arropa eta liburuak. Egitasmoaren helburua da kontsumo arduratsua eta ondasunen berrerabilpena bultzatzea, eta, batez ere, ikasleak gaur egungo ekonomia ereduaren gizarte- eta ingurumen-eraginekiko sentikor bihurtzea. Baina prozesua ekital-

diaren eguna baino askoz lehenago hasten da. Aurretik, Emausek sentsibilizazio-talerrak egiten ditu Gizarte Ekonomia Solidarioari buruz, gizarte-taldeekin elkartzea errazten du eta ikasleei laguntzen die azoka antolatzen: komunikazio-kanpaina, objektuak biltzea eta ekintzak planifikatzea, adibidez, musika-bingoa, *photocall*-a eta hausnarketarako guneak.

Ikuspegi horri esker, ikasleek praktikatik ikasten dute, gaitasun giltzarriak garatzen dituzte, adibidez, gizarte-komunikazioa, eta, gehienbat, talde-aldaketaren parte aktibo sentitzen dira. Prozesuaren baitan, Emausek Derion duen eguneko zentroa ere bisitatu zuten, eta, erakundearen gizarte-inklusiorako proiektuak ezagutzeaz gainera, azokan berrerabiltzeko objektuak jaso zituzten bertan.

Urte hauetan guztietan, 70 ikasle eta irakasle konprometituk baino gehiagok parte hartu dute esperientzian, Emauseko lantaldeak lagunduta. Emaizta da unibertsitate-komunitatean benetako eragina duen heziketa-ekimena eta unibertsitatearen eta lurraldearen artean zubiak eraiki ahal diren erakusgarri zehatza. Truke Azoka oso harrera ona duen egitasmoa da, eta, horregatik, denboran iraungo duen zantzua du. Izan ere, hainbat fakultatetako irakasleek adierazi dute egitasmoarekin bat egiteko interesa dutela eta ikasleak alternatiba solidarioak eta

jasangarriak sustatzeko ekintzetan parte hartzera animatu nahi dituztela. Emauseko lantaldeko kideok, bestalde, jarraitzen dugu munduari zabalik dagoen unibertsitate baten aldeko apustua egiten, inguruari entzun eta hitz egiten dion unibertsitate baten alde, ulertzen duena hezkuntza edukiak helaraztea ez ezik, gizarte eraldatzeko tresna ere badela.

Beste alde batetik, gogo handiz helitzen diogu ekimena unibertsitatetik gune komunitarioetara eramateko aukerari, esaterako, Derioko jaietara. Truke-azokak jaietan eta auzoetan bultzatzea aukera bikaina izan daiteke egunerokotasunetik berrerabilpena, auzokideen arteko topaketa eta ekonomia justuagoa sustatzeko. Halako azokek objektuak trukatzeko bultzatzen dute, baina baita balioak, ezagutza eta loturak trukatzeko ere. Egitasmoa auzoetara eramaten bada, ahalbidetzen da adin, kultura eta jatorri guztietako pertsonen parte hartzea eta sustatzen dira elkarren zaintza, ekonomia zirkularra eta komunitatea sendotzea. Gauza da gune eskuragarriak, eraldatzaileak eta jasangarriak sortzea, zeinetan jaia, hezkuntza eta kolektiboa uztartzen baitira eta trukaturako objektu bakoitzak elkarlanari eta gizarte- eta ingurumen-konpromisoari buruzko istorio bat kontatzen duen. Eta zu, animatuko zara hurrengo Truke Azokan parte hartzera?

FREPIK

TEKNOLOGIA

XABIER DIAZ

@xa2_baraka@mastodon.eus

Jimi Hendrixen gitarra ez da neutroa (ezta adimen artifiziala ere)

Bere trebezia liluragarriaz gain, Hendrixek gitarra elektrikoaren maila eta hiztegia zabaldu zituen musikariak lehenago ausartu ez ziren eremuetara, rock and rollaren soinua betiko eraldatuz. Bere irudiak edo bideoak ikusteko aukerarik badaukazue, ziur aski Stratocaster batekin ikusiko duzue, hori baitzen bere instrumenturik kutunena. Eta fijatuko zarete “arraro” daukala. Izan ere, bera ezkerra zen, eta orduan ez zen ezkerrentzako gitarrarik egiten. Beraz, eskuinentzakoa hartu, iraulita jarri, eta soken ordena aldatu egiten zuen.

Teknologia neutroa dela esaten digutenean, ez dute kontuan hartzen teknologia garatzerakoan pertsonen alborapenak teknologiarantz eramaten direla. Inguruan daukadan jende gehiena eskuina bada eta ni neu eskuina banaiz, gitarra berri bat diseinatzen dudanean norentzako gitarra izango da? Eta ez pentsatu norbait izorratzearen egiten dudunik. Hori da

ezagutzen dudun errealitatea, besterik ez.

Alde batetik, informazioa prozesatu eta erantzuna ematen duen algoritmoan programatzaileen usteak, jatorriak, egunerokotasunak... txertatzen dira oso era leunean, konturatu barik. Adibidez, eskal gizarteaz hazitako programatzaile batek, lan eskaintzak aztertzen dituen adimen artifizial batean, indar handiagoa eman lekiok enpresak duen bazkarien kalitateari, gizarte ingelesean hazitako beste batek baino. Beste alde batetik, datuak nondik eta zelatan jasotzen ditugun ere eragina dauka.

Amazonen 2014an langileen kontratazioan lagunduko zion ikasketa automatikoko erreminta bat jarri zuen martxan. Adimen artifizialean oinarrituta, milaka curriculum prozesatzeko gai zen oso denbora laburrean, eta hortik bost hautagai idealak proposatzen zituen. Beti gizonezkoak. Algoritmoa aztertuta, ez zirudien inongo alborapenik zeukanik. Zenbait gizonezko eta emakumezkoen

curriculumak aztertuta, ezin zen emaitza justifikatu. Zein zen arazoa orduan?

Sistema entrenatzeko, Amazonera ordura arte aurkeztutako curriculumak erabili ziren. Eta gakoa hemen zegoen: gehien-gehienak gizonezkoenak ziren, eta horregatik gehiago baloratzen ziren.

Ezin da esan teknologia neutroa denik; are gutxiago adimen artifiziala. Garenak eta inguruan daukagunak eta zerekin elikatzen garen guztiz baldintzatzen dute emanngo duen erantzuna. Adimen artifizialaren laguntzarekin gero eta erabaki gehiago hartzen dira. Batzuetan, horrelako tresnek hartzen dute erabakia zuzen-zuzenean. Horregatik, derrigorrezkoa dugu neurriak hartzea alborapen hauek kontuan hartuta, gizarte baztertzailerako bat izan ez dezagun.

Jimi Hendrixek errealitatea moldatzea izan zuen, eskuinentzako gitarra hartu eta egokituz. Baina ez al da hobe hasieratik, izan eskuin, ezker, altu, bazu... dezentzako gitarrak izatea?

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)




**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7. beheka - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21



1 Berreagako estela



2 Eperlandako lubakia



3 Eperlandako babeslekua

**IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA**

MENDITIK PATXADAZ

Txorierrri iparraldetik (eta II)

Aurreko alean Txorierrriko iparraldetik ibili ginen, Martiartutik Artebakarrara. Oraingoan aurrera egingo dugu eta Astoreka auzoraino helduko gara. Berreagako eta Gaztelumendiko tontorrak zapaltzeaz gain, Burdin Aroko kastro bat, leiho prerromaniko polit bat eta hainbat bunker bisitatuko ditugu. Ezin dugu ahaztu inguru hau Bilboko Burdin Hesia deitutako parte zela, izan ere, bertatik apurtu zuten frankistek defentsa lerroa. Ia ibilbide osoa GR280 markei jarraituz egin daitezke.

Artebakarran hasi gara oinez, Derio eta Mungia artean. Zubia gurutzatu dugu eta errepideari jarraituz joan gara Berriaga urbanizazioraino; 2 km hauek ez dira bide bazterretik oso atseginak izan. Lurrezko pista hasita, eskuinekoa, gorantz doana hartu dugu, eta sigi-saga batzuk eginez altura hartu ostean bidegurutze bateraino heldu gara. Gezi batek markatu digu Berreaga mendi tontorrera nondik joan. Ia atzera eginez, basoan sartuta, laster heldu gara buzoia dagoen lekuraino (363 m). Inguruan bueltaka ibili gara, Txorierrri begira dagoen aulki batean jesarrita bistaz gozatu, eta bertan zegoen kastro baten aztarnak aurkitzen saiatu gara. Ez da erraza: hainbat bidezidor daude eta muraila izan zitekeen harriak aurkitu daitezke han eta hemen. Orain dela nahikotxo indusketa egin zen eta bertan aurkitutakoa Bilboko Arkeologia Museoa dago ikusgai, estela ederrak barne.

Aurrera egin dugu gailurretik, eta une batean pista nagusia utzi, eta ezkerretik

paralelo doan beste bat hartu dugu. Lasterr, ezkerretara eginez, Lobako bunkerak bisitatu daitezke joan-etorrian, baina nahiko jaitsi behar denez, beste baterako utzi dugu. Aurrera egin, eta Eperlanda multzoko bunkerrera dago sarrera; ondo seinalatuta daude guztiak. Kontutan hartu bunkerretara heltzeko 100 bat metro jaitsi beharko ditugula maldan behera eta garbiketa eta indusketa egin arte ia estalita egon direla. Beraz, behera eginez lubaki luze bat aurkitu dugu, garbituta eta ego kituta. Lubakien lerroa ia ibilbide osoan dago, baina gehiena guztiz estalita dago gaur egun. Lubakiaren amaieran metrailadore habia dago; ez dauka sabairik, zeren, gehienak bezala, gerra ostean hormigoiak zeukan burdina lortzeko apurtu egin zituzten. Daukaten hormigoizko gela txikia munizioa gordetzeko erabiltzen zen. Gora itzuli gara eta lehen utzitako pista nagusia hartuta, bigarren bunkerrera sartu gara, nahiko apurtuta dagoena. Berririo pistara eta berririo beherantz, atsedan gune bate-

tik jarraituz metrailadore habia bat, lubakia eta mendian zulatutako babesleku bat ikusi ditugu. Babesleku hauetan sartzen ziren gudariak bonbardaketa unetan.

Pista zabaletik aurrera eginez, Urruzti-ganera heldu gara eta Lezamatik Fikara doan bidea gurutzatu dugu. Gaztelumendira heldu baino lehen beste bunker bat dago, nahiko apurtuta. Gaztelumendi tontorrera igo gara (323 m.) Inguruan daude: metrailadore habia bi, bata osorik, bestea bonba batek zulatuta, antiaereo bat goiko parte barik... Tontorretik jaitsi gara errepidetik, eta laster hori utzi, eta aurrera egin dugu lurrezko pistatik, altueratik. Auzo honek Gaztelu du izena eta bertan beste kastro bat egon omen zen, oraindik aurkitu barik. GRko marra zuri gorriei jarraituz, Zarandoako San Salbador ermitara heldu gara. Ez ahaztu atzeko hormara joan eta leiho prerromaniko ikusgarria ikustea. Bakarrik falta zaigu errepidetik Astorekara jaitea. Amaitu dugu 13 kilometroko ibilbide ederra.



4 Gaztelumendiko bunkerra



5 Gaztelumendiko bunkerra




6 Zarandoako San Salvador ermita

Ibilbidea

Distantzia: 13 km

Desnibel positiboa: 283 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a





WIKIMEDIA / JOSÉ VERÓN-DURAND

@TXIRIBITA_MUNDI

HERBARIOA

Astalikardua

Silybum marianum. Mediterraneoko herrialdeetako eta Asiako landarea da eta grekoen eta erromatarren garaitik erabiltzen da. Gaur egun, planetako alde gehienetan dago eta itsas mailatik 1.300 metroko altuerara arte topatu daiteke. Batez ere Europako hegoaldean hazten da, lugorrietan, errepide ertzetan edo eremu epeletako zelaietan. Bi urtez behingo landare belarkara da, eta bi metroko altuera ere izan dezake. Hosto handiak ditu, berde distiratsu kolorekoak eta orban zuriak dituztenak. Hostoak hori koloreko arantza finetan amaitzen dira, eta iletxoak dituzte beheko aldean. Purpura koloreko loreak ditu, eta udan loratzen da, ekaina eta abuztua bitartean.

Penintsulan astalikardua ugaria goa da zapata-kardua (*Silybum eburneum*) baino, nahiz eta kontuan izan behar den noizean behin bi espezieak hibridatzen direla. Zapata-karduak ez du 1,5 metro baino gehiago neurtzen, eta bere hostoak ez dira hain jaspeztatuak. Loreak, bestalde, zuriak edo krema kolorekoak dira batzuetan.

SUKALDEAN

Lehen urteko sustraia, lorea garatu baino lehenagokoa, egosita har daiteke zopetan edo saldetan. Arantzak kenduta, hosto gazteak, samurrenak barazki moduan jan ditzakegu entsalada, salda edo irabiatu berdeetan. Infusioetan erabiltzeaz gainera, haziak eho, eta plater batzuetan erabil ditzakegu, adibidez, pureetan eta entsaladetan hautseztatuta. Haziak abe-

ratsak dira B1 eta C bitaminetan, flabonoideetan, fosforoan, kaltzioan, silizioan eta magnesioan.

Errezeta: parmesano beganoa

Errezeta hau gazta arraspatuaren ordeztu daiteke. Oso aukera osasungarria da, eta sukaldaritza errezeta askori gehitu ahal zaie. Osagaiak: ¼ katilukada sesamo-hazi, ¼ katilukada liho-hazi, ¼ katilukada ekilore- eta kalabaza-hazi, ¼ katilukada astalikardu-hazi, hiru koilarakada legamia nutrizional edo garagardo-legamia, koilarakada txiki bat kurkuma piperbeltz apur batekin (aukerakoa) eta gatz apur bat. Hazi-kantitate bera, gordinean, erabiltzen da, nutrizio-propietate guztiei eusteko. Ahal dela, hobe ekologikoak badira. Prestatzeko modua: kafe-errota batekin lagunduta, haziak birrinduko ditugu, eta ondoren gehituko ditugu legamia, kur-

kuma eta piperbeltza. Berrirori birrinduko dugu dena, harik eta hauts bihurtzen den arte. Haria duen kristalezko pote batean gordeko dugu, leku siku eta ilun batean. Aste bateko epean kontsumituko dugu onura guztiak aprobetxatzeko. Pasta-errezetetan erabil daiteke, barazki-kremetan, labean egindako barazkien gainean, arrozetan eta olioan eta tomatez edo berakatzeguz igurtzitako tostadetan.

PROPIETATE SENDAGARRIAK

Haziak fitoterapiari erabiltzen dira. Oso sendabelar egokia da gibelerako, izan ere, arazgarria denez, toxinak eta substantzia kaltegarriak kanporatzen laguntzen du. Gainera, gibela birsortzen laguntzen du. Gibelaren egoera eta funtzionamendua hobetuta, digestio-aparatuak ere onura handiak na-

barituko ditu. Kardua gibela arazteko tratamenduetan erabiltzen da, beste landare batzuetan nahastuta, adibidez, orburuarekin eta txikoria-belarrarekin. Era berean, eragin antiinflamatorioa eta antialergikoa du. Horregatik gomendatzen da urtaroko alergia agertu baino gutxienez hilabete bat lehenago astalikardua erabilita gibela araztea.

Infusioa: 100 ml uretan 3-5 g hazi irakindu du pare bat minutuan; ondoren, 15 minutuan jalkiko dugu eta iragaziko dugu. Egunean hiru katilukada edan daitezke otorduak baino lehen.

BITXIKERIAK

Karduen buruak esnea mamitzeko erabiltzen dira. Tradizioz basoko kardo (Cynara cardunculus) erabiltzen da, eta teknikari "karduaren gatzagia" esaten zaio. Gatzagi-mota hori erabilita egiten da, adibidez, Casarreko opila, Cácereseko Casar herriko gazta tipikoa dena.

KONTRAINDIKAZIOAK

Tentsio altua duten pertsonak ezin dute hartu, tentsioa igotzen duelako.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



WIKIMEDIA

TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



BABESPEKO
APARTAMENTUAK

EGONALDIAK
EGOITZEAN

egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180

(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



SUKALDARITZA

Lezamako sukaldaritza ikastaroan egindako errezetak

“Vikingo” izokin-sandwicha



Osagaiak (13 anoa):

39 sandwich-ogi xerra
52 g tomate
130 g errukula
78 g izokin ketu
8 arrautza
5,2 g gatz

Saltsa tartariarra egiteko:

0,52 l maionesa
2 arrautza egosi
7 g kapar ozpinetan
100 g kipula
40 g ozpin-pepino
10 g perrexila
10 g gatz

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin, saltsa tartariarra egingo dugu. Horretarako, osagaiak txikitu, eta nahasiko ditugu. Bestalde, arrautzak egosiko ditugu, oskola kendu, eta gordeko ditugu. Tomatea xerra mehetan moztuko

dugu. Beste alde batetik, ogi-xerra baten gainean saltsa tartariar apur bat igurtziko dugu. Horren gainean, tomate-xerra batzuk ipiniko ditugu, errukula eta beste ogi-xerra bat. Horren gainean saltsa tartariar igur-

tziko dugu, izokin ketua ipiniko dugu, eta, azkenik, beste ogi-xerra bat. Arrautza egosiak birrinduko ditugu, eta sandwich gainetik botako dugu. Ogiaren azala moztuko dugu, eta sandwicha erditik moztuko dugu.

Amumaren tarta



Osagaiak

200 g txokolate beltz
100 ml esne-gain
2 flan-zorro
Litro bat esne
100 ml esne (gailetak bustitzeko)
3 koilarakada azukre
450 g gaileta txigortu eta errektangular

Prestatzeko era:

Flana egiteko prestakina esne-edalontzi batean urtuko dugu, eta gainerako esnea azukrearekin batera ipiniko dugu ontzi batean berotzen. Irakiten hasten denean, flana egiteko prestakina duen esnea gehituko dugu. Eragingo dugu. Esnea su motelean ipiniko dugu, eta etengabe eragingo dugu harik eta lodi-

tzen hasten den arte. Molde errektangular batean, gailetak (alde aurretik bustita) ipiniko ditugu, eta haien gainean, flanaren erdia. Beste gaileta-kapa bat ipiniko dugu, eta gainean, flanaren beste erdia. Azken gaileta-kapa jarri, eta hozkailuan gutxienez ordubete izango dugu hozten. Beste alde batetik,

esne-gaina berotzen ipiniko dugu. Irakiten hasten denean, sutatik kenduko dugu eta txokolatea gehituko dugu. Desegin arte eragingo dugu, eta azken gaileta-kaparen gainean botako dugu. Hogeita hamar minutu inguru izango dugu hozten, harik eta amumaren tarta mamitzen den arte.

DENBORA-PASAK

Nondik gurutzatuko du harrak sagarra?



SUDOKU ERRAZA

3	2			1		7	8	
		6	4		7		1	
		9			3		5	2
						9		4
	9		7	6	4	8	3	
7			5		8		6	1
9	6	2		7		5	4	
8			3	4				
			2		6			8

SUDOKU ZAILA

4	2	7	5					
9					2			
6		3		9			2	
							4	
				3	4	6		
						3	5	8
8					6	4		5
	4	9	8				7	
2		6		7		9	8	

EKAINEKO AGENDA

1, domeka

500 Trail lasterketa LOIU

10:30 **Udaberriko erromeria**, Bizkargi dantza-taldeak antolatua
LARRABETZU Plazan

11:00 **XXII. Txakolinaren Eguna**
LEZAMA

4, eguaztena

18:30 **Zaintza: esperientzien plaza LARRABETZU** Ludoteka gaineko aretoan

5, eguena

19:00 **Enplego zoriontsuago bat: Gabriel Arestiren kanta eta poemak**, Eñaut Elorrietaren eta Iñigo Astizen eskutik. **LARRABETZU** Hori Bai gaztetxean, Kulturbilguneak antolatua

6,7 eta 8

Pazko jaiak ZAMUDIO (13. orrialdean)

7 eta 8

Euskal Backyard Ultra LOIU

7, zapatua

21:00 Kontzertuak: **Kaleko Urdangak, Prisonnier du Temps eta Legez Kanpo LARRABETZU** Hori Bai gaztetxean

13, barikua

San Antonio LARRABETZU

19:00 **Gurasoekin bilera**, Uda programa dela-eta **LEZAMA** Kultura Aretoan

21:15 **Esku-pilota**: Bizkaia Torneoaren final-laurdenak **LEZAMA** Frontoian

15, domeka

17:30 **Esku-pilota**: Bizkaia Torneoaren finalerdiak **LARRABETZU** Frontoian

16, astelehena

18:30 **Zaintza: esperientzien plaza LARRABETZU** Ludoteka gaineko aretoan

17, martitzena

19:00 **Zinekluba: Ombuaren itzala** eta solasaldia Patxi Biskertekin
LARRABETZU Hori Bai gaztetxean

19, eguena

19:00 **Literaturaz Berbetan: Mesfida zaitez**, Bea Salaberriren eskutik
LARRABETZU Ludoteka gaineko solairuan

19:00 **Izar Argia abesbatzaren kontzertua LARRABETZU** Andra Mari elizan.

20,21, 22, 23 eta 24

San Joan jaiak SONDIKA (15. orrialdean)

21, 22

Green Series Challenge XCO 2025, Zorribike kirol-taldeak antolatua
LEZAMA Elorritxueta – El Viveron

23, astelehena

San Joan sua: dantzak, musika, merienda-afaria, akelarrea... LEZAMA Uribarri Topalekuaren ondoko landan. Udalak eta herriko taldeek antolatua: Zorritzetan, Kurutze, Ekidazu, Gurasoen Elkartea eta Burrundadie

San Joan sua: antzerkia, dantza-plaza... LARRABETZU

26, eguena

10:00 **Pala egokituaren txapelketa LEZAMA** Frontoian

28, zapatua

XX. Paella Lehiaketa LOIU

Ekidazu abesbatzaren eta Onil Alacanteko abesbatzaren kontzertua LEZAMA Andra Mari elizan

LAGATZU EGUNA

EUSKAL JAIA 2025

Gure jendea

dokumentalaren grabazioa
Amaia Uribe kazetariagaz



EKAINAK 27, barikua

21:00

Kantaldia

Fernan tabernaren ondoko plazan

EKAINAK 28, zapatua

11:00

Herriko taldeen erakustaldiak eta
azoka

Arbolantxa kalean zehar

Animazioa herri
guztian zehar

15:00

Herri bazkaria - Agirre plazan

Nagusiak: 22 € / Umeak: 15 €

Txartelak herriko dendatan eta tabernatan salgai.

Erosteke azken eguna ekainaren 24an.



17:00

BROKEN IZOTZ taldeak
lagunduta euskal abestiak
taldeakaz

ZURESKU egurrezko jolas
tradizionalak

20:00

Erromeria: TRIKIZIO

Animatu eta parte hartu kuadrilleagaz.
Atara euskal jantziak armairutik!



**Udan ere
euskaraz eroso**



EUSKALTEGIAK
Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



**FAMILIA
BARNETEGIAK**
Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**
Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



IBILTARIA
Euskal Herria
zeharkatu eta
15 egunez
euskaraz mintzatu



**ONLINE
IKASTAROK**
A **BETETA**



PRAKTIKATU
Udan ere,
mintzalagunak
martxan; hurbildu
zure euskaltegira

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Informazio gehiago



673 200 100 / 946 464 000
www.aek.eus

TXORIERRIKO AEK

B2, C1 MAILAK PRESTATZEKO IKASTARO TRINKOAK

UZTAILA: 1etik 29ra

Izen ematea: ekainaren 27ra arte

*Taldea sortuz gero, eskolak Mungiako Kinttopeko euskaltegian izango dira

IRAILA: 80 ordu: 2tik 29ra (4 ordu egunean)

Izen ematea: uztailaren 11ra arte

30 ordu

(2024-25 ikasturtean euskaltegian B2 eta C1 maila aitortuta dutenentzat)

15etik 26ra (3 ordu egunean)

Izen ematea: irailaren 12ra arte

Diruz lagundutako ikastaroak

Informazioa eta izena emateko: Txepetxa euskaltegia | Gorbea kalea 5, behea - Derio

94 454 39 67 | 607 598 794 | txepetxa@aek.eus